// NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia | Iruñean, 2001eko apirilaren 11n | 41 ZK.

## A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

—Aezkoa Ibarreko udalei eta Aezkoako Batzarre Nagusiari buruzko fiskalizazio-txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

—Aezkoa ibarreko arrazoizkotasun ekonomikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina (24. or.).

—Iruñerriko Mankomunitatearen kudeaketa sozietateak eginiko inbertsioen BEZa Nafarroako Gobernuak kobratzeari buruz aholku emateko txostena, Kontuen Ganbarak egina (36. or.).

**G Saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Aezkoa Ibarreko udalei eta Aezkoako Batzarre Nagusiari buruzko fiskalizazio-txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Aezkoa Ibarreko udalei eta Aezkoako Batzarre Nagusiari buruz egindako fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Aezkoa Ibarreko udalei eta Aezkoako Batzarre Nagusiari buruzko fiskalizazio-txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (2. or.).

**II.** Helburua (3. or.).

**III.** Norainokoa eta mugak (3. or.).

**IV.** Abaurregaineko Udala (4. or.).

**V.** Abaurrepeko Udala (6. or.).

**VI.** Ariako Udala (8. or.).

**VII.** Aribeko Udala (10. or.).

**VIII.** Garaioako Udala (12. or.).

**IX.** Garraldako Udala (14. or.).

**X.** Orbaitzeko Udala (16. or.).

**XI.** Orbarako Udala (18. or.).

**XII.** Hiriberriko Udala (20. or.).

**XIII.** Aezkoako Batzarre Nagusia (22. or.).

Behin-behineko txostenari egindako alegazioak (24. or.).

### I. SARRERA

Aezkoa ibarra Nafarroako iparraldean dago, Iruñetik 60 kilometrotara, eta ondotik heldu diren herriek osatzen dute. Hona hemen herri horietako biztanleen kopurua eta 1999ko aurrekontua (milioi pezetatan):

| | | 1999an betetako aurrekontua | |
|---|---|---|---|
| Udalerria | Biztanleak | Dirusarrerak | Gastuak |
| Abaurregaina | 174 | 36 | 23 |
| Abaurrepea | 46 | 7 | 7 |
| Aria | 69 | 6 | 4 |
| Aribe | 63 | 39 | 6 |
| Garaioa | 134 | 85 | 51 |
| Garralda | 215 | 94 | 70 |
| Orbaitzeta | 240 | 31 | 28 |
| Orbara | 59 | 26 | 5 |
| Hiriberri | 154 | 12 | 14 |
| Guztira | 1.154 | 336 | 208 |

Bederatzi herri horiek osatzen dute Aezkoako Mankomunitatea. Hura osatzen duten ondasun guztien benetako ordezkari eta administratzailea Aezkoako Batzarre Nagusia da.

Udal horiek ez dute ez erakunde autonomorik ez toki enpresarik, Orbaitzetako Udalak izan ezik, 1999an, pertsona bakarreko enpresa bat sortu baitzuen, Electra de Orbaitzeta, s.L., udala titularra duena eta ekitaldian apenas jardunik izan ez duena. Udal guztiak daude honako mankomunitate eta partzuergo hauetan:

• Hiri hondakin solidoak kudeatzeko Bidausi Mankomunitatea

• Gizarte zerbitzuetako Auñamendi mankomunitatea.

• Nafarroako Pirinioko Turismo Partzuergoa.

• Cederna-Garalur garapen-agentzia

Txostena baliagarriagoa izan dadin eta ibarrari buruzko ikuspegi orokorra ematearren, agiri bakar batean eman ditugu Aezkoa osatzen duten toki entitateei buruzko fiskalizazio txostenak.

Txostenaren osagarri, beste txosten bat egin dugu, ibarrean ematen diren zerbitzu publikoen arrazoizkotasun ekonomikoari buruzkoa.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Aezkoa ibarreko Udalen eta Aezkoako Batzarre Nagusiaren 1999ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastu eta dirusarrera aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Toki entitateei aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurretik aipaturiko legeek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, kontularitza eta administrazio-kontratazioari buruzko arauek eta Nafarroako toki-enteei orokorki aplikatzekoak zaizkion gainontzeko arauek, eta bereziki, Aezkoako ordenantzek.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Aezkoako Udalen eta Batzarre Nagusiaren 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 1999ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera islatzea, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Aezkoako udalen eta Batzarre Nagusiaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Zein zen Aezkoako udalen eta Batzarre Nagusiaren finantza-egoera 1999ko abenduaren 31n.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganbarak Aezkoako udalen eta Batzarre Nagusiaren 1999ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalek aurrekontu-kontabilitatean baino ez dituzte jasotzen bere eragiketak. Aezkoako Batzarre Nagusia, ordea, Nafarroako Toki Administraziorako Kontabilitate Sinplifikatutako Instrukzioa ezartzen ari da (273/1998 Foru Dekretua).

Beraz, eginiko lanak hauxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko atal ekonomikoak berrikustea, antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertuz.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta arauei jarraituz burutu dugu lana. Era berean, egoera kontuan hartuz eta aldez aurretik Aezkoako udalei eta Batzarre Nagusiari bidali genien galdera-sortak agerian utzitako arazoak kontuan hartuz beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu.

Kontabilitate orokorrik ezak mugatu egin du Aezkoako udalen ondasun-egoerari buruz egin dugun azterketa.

Txostenean daude Aezkoako Udalen eta Batzarre Nagusiaren kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterketa lana 2000ko uztailean eta irailean egin dugu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Aezkoako udaletako eta Batzarre Nagusiko langileei.

## IV.ABAURREGAINEKO UDALA

IV.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Abaurregaineko Udalaren 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

**IV.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez**

Honekin batera doa 1999ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, behar bezala erakusten dituena fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak.

**IV.1.2. Ondare-egoeraren agerpena**

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1994koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1999ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

**IV.1.3. Legezkotasuna**

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz burutu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze antzeman diren, bereziki Udalaren eta idazkariaren arteko kontratu formalik eza, idazkariarena ez baita lanpostutzat hartzen. Horretaz gainera, egoera horrek ez du legea betetzen honako puntuotan:

• Idazkariaren lansarien likidazioari ez zaio PFEZa atxiki.

• Ez da Gizarte Segurantzako kotizaziorik egiten, eta horren ordez, ez da fakturarik aurkezten, BEZa jasanarazirik, lan-zerbitzuak eskaintzeagatik.

**IV.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa**

Abaurregaineko Udalak finantza-egoera garbia du 1999ko abenduaren 31n. Zorpetzerik gabe, aurrezki garbia 7,5 milioikoa da ekitaldia ixtean, eta diruzaintza-gerakina 23,3 milioikoa.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake Abaurregaineko Udalak aurrekontuak modu egokian kudeatzen dituela, administrazio-ikuspegi batetik begiratuz, baina beharrezko duela honakoa:

• Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

• Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, batez ere inbertsio errealen eta kapital-transferentzien alorrekoak.

• Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

• Informazio-prozesuak abiaraztea jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen segimendua egiteko:

a) Ekitaldi bakoitzeko gastuak eta dirusarrerak proiektuak irauten duen bitartean. Bertan adieraziko dira kontusaila, aurrekontua eta aitortutako obligazioak eta likidatutako eskubideak.

b) Dirusarreretako finanzazio-koefizientea eta desbideraketak, bai metatuak bai urte horri egotzi beharrekoak.

• Dirusarrera eta gastu guztietarako, legeak agindutako onespenaren eta barne-fiskalizazioaren egiaztagiriak prestatzea, behar bezala sinaturiko kutxako agiri eta igorpenen bidez.

• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributu-kontzeptuen erroldeak eta karga-tasak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta errekargua ezarriko dira.

Finantzen ikuspuntutik, oso egoera garbia du, ia zorrik ez baitago, eta diruzaintza-gerakina, aldiz, garrantzitsua delako.

IV.2. ABAURREGAINEKO UDALAREN FINANTZA-EGOERA

1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

| | Aurrekontua | | Likidatutako eskubideak | | Betetako |
|---|---|---|---|---|---|
| DIRUSARRERAK | Hasierakoa | Behin betikoa | Pezetak | Euroak | % |
| 1. Zuzeneko zergak | 1.923.245 | 1.923.245 | 1.895.688 | 11.393,31 | 98,57 |
| 2. Zeharkako zergak | 1.791.007 | 1.791.007 | 1.264.859 | 7.601,96 | 70,62 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 1.637.760 | 1.637.760 | 4.602.880 | 27.663,87 | 281,05 |
| 4. Transferentzia arruntak | 6.082.000 | 6.082.000 | 5.751.745 | 34.568,68 | 94,57 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 1.980.000 | 1.980.000 | 766.665 | 4.607,75 | 38,72 |
| 6. Inbertsio errealak besterentzea | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 7. Kapital-transferentziak | 137.840.000 | 137.840.000 | 21.773.524 | 130.861,51 | 15,80 |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 34.123.336 | 34.123.336 | 0 | 0,00 | |
| DIRUSARRERAK, GUZTIRA | 185.377.348 | 185.377.348 | 36.055.361 | 216.697,08 | 19,45 |

| | Aurrekontua | | Likidatutako eskubideak | | Betetako |
|---|---|---|---|---|---|
| GASTUAK | Hasierakoa | Behin betikoa | Pezetak | Euroak | % |
| 1. Langileen lansariak | 2.901.385 | 2.901.385 | 2.893.204 | 17.388,51 | 99,72 |
| 2. Ondasun arruntak eta zerb. esk. | 5.573.901 | 5.573.901 | 2.819.291 | 16.944,28 | 50,58 |
| 3. Interesak | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 4. Transferentzia arruntak | 362.062 | 362.062 | 981.759 | 5.900,49 | 271,16 |
| 6. Inbertsio errealak | 176.540.000 | 176.540.000 | 16.531.671 | 99.357,34 | 9,36 |
| 7. Kapital-transferentziak | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| GASTUAK, GUZTIRA | 185.377.348 | 185.377.348 | 23.225.925 | 139.590,62 | 12,53 |
| ALDEAK | 0 | 0 | 12.829.436 | 77.106,46 | |

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## V. ABAURREPEKO UDALA

V.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Abaurregaineko Udalaren 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

**V.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez**

Honekin batera doa 1999ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak.

**V.1.2. Ondare-egoeraren agerpena**

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1994koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1999ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

**V.1.3. Legezkotasuna**

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz burutu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze antzeman diren, bereziki Udalaren eta idazkariaren arteko kontratu formalik eza, idazkariarena ez baita lanpostutzat hartzen. Horretaz gainera, egoera horrek ez du legea betetzen honako puntuotan:

• Idazkariaren lansarien likidazioari ez zaio PFEZa atxiki.

• Ez da Gizarte Segurantzako kotizaziorik egiten, eta horren ordez, ez da fakturarik aurkezten, BEZa jasanarazirik, lan-zerbitzuak eskaintzeagatik.

**V.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa**

Abaurrepeko Udalak honako finantza-egoera hau du 1999ko abenduaren 31n: 23,3 milioiko zorra; ekitaldia ixtean, aurrezki garbiak 1,5 milioi pezeta egiten du; diruzaintza-gerakin negatiboa, aldiz, 1,1 milioikoa da.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake Abaurrepeko Udalak modu egokian kudeatzen dituela aurrekontuak, administrazio-ikuspegi batetik begiratuz. Hala ere, honako hau du beharrezko:

• Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

• Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, batez ere inbertsio errealen eta kapital-transferentzien alorrekoak.

• Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

• Informazio-prozesuak abiaraztea jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen segimendua egiteko:

a) Ekitaldi bakoitzeko gastuak eta dirusarrerak proiektuak irauten duen bitartean. Bertan adierazi-ko dira kontusaila, aurrekontua eta aitortutako obligazioak eta likidatutako eskubideak.

b) Dirusarreretako finanzazio-koefizientea eta desbideraketak, bai metatuak bai urte horri egotzi beharrekoak.

• Dirusarrera eta gastu guztietarako, legeak agindutako onespenaren eta barne-fiskalizazioaren egiaztagiriak prestatzea, behar bezala sinaturiko kutxako agiri eta igorpenen bidez.

• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributu-kontzeptuen erroldeak eta karga-tasak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta errekargua ezarriko dira.

Finantzen ikuspuntutik, arazoak agertzen ditu diruzaintzan, zor handia duelako egin dituen ondare-inbertsioengatik (Hostala) eta, horretaz gainera, diruzaintza-gerakina negatiboa delako.

V.2. ABAURREPEKO UDALAREN FINANTZA-EGOERA

1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

| DIRUSARRERAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 750.000 | 750.000 | 609.795 | 3.664,94 | 81,31 |
| 2. Zeharkako zergak | 280.450 | 280.450 | 237.342 | 1.426,45 | 84,63 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 430.000 | 430.000 | 560.072 | 3.366,10 | 130,25 |
| 4. Transferentzia arruntak | 1.455.000 | 1.455.000 | 1.797.083 | 10.800,69 | 123,51 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 1.150.000 | 1.150.000 | 1.246.110 | 7.489,27 | 108,36 |
| 6. Inbertsio errealak besterentzea | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 7. Kapital-transferentziak | 7.150.000 | 7.150.000 | 2.404.555 | 14.451,67 | 33,63 |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| DIRUSARRERAK, GUZTIRA | 11.215.450 | 11.215.450 | 6.854.957 | 41.199,12 | 61,12 |

| GASTUAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen lansariak | 815.986 | 815.986 | 789.593 | 4.745,55 | 96,77 |
| 2. Ondasun arruntak eta zerb. esk. | 1.175.000 | 1.175.000 | 1.540.160 | 9,256,55 | 131,08 |
| 3. Interesak | 240.000 | 240.000 | 43.181 | 259,52 | 17,99 |
| 4. Transferentzia arruntak | 150.000 | 150.000 | 516.190 | 3.102,36 | 344,13 |
| 6. Inbertsio errealak | 8.200.000 | 8.200.000 | 4.007.976 | 24.088,42 | 48,88 |
| 7. Kapital-transferentziak | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 634.464 | 634.464 | 369.822 | 2.222,67 | 58,29 |
| GASTUAK, GUZTIRA | 11.215.450 | 11.215.450 | 7.266.922 | 43.675,08 | 64,79 |
| ALDEAK | 0 | 0 | (411.965) | (2.475,96) | |

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## VI. ARIAKO UDALA

VI.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Ariako Udalaren 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

### VI.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doa 1999ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak.

### VI.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1994koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1999ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

### VI.1.3. Legezkotasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz burutu da, aurrekontuetan, ez betetze formal batzuk antzeman badira ere.

### VI.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Ariako Udalak finantza-egoera garbia du 1999ko abenduaren 31n: 2,6 milioiko zorra besterik ez du, aurrezki garbia 2,3 milioikoa da ekitaldia ixtean, eta diruzaintza-gerakina 7,3 milioikoa.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake Ariako Udalak aurrekontuak modu egokian kudeatzen dituela, administrazio-ikuspegi batetik begiratuz, baina beharrezko duela honakoa:

• Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

• Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, batez ere inbertsio errealen eta kapital-transferentzien alorrekoak.

• Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

• Informazio-prozesuak abiaraztea jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen segimendua egiteko:

a) Ekitaldi bakoitzeko gastuak eta dirusarrerak proiektuak irauten duen bitartean. Bertan adierazi-ko dira kontusaila, aurrekontua eta aitortutako obligazioak eta likidatutako eskubideak.

b) Dirusarreretako finanzazio-koefizientea eta desbideraketak, bai metatuak bai urte horri egotzi beharrekoak.

• Gastu guztietarako, edozein direla ere, behar den egiaztagiria eskatu behar da.

• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributu-kontzeptuen erroldeak eta karga-tasak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta errekargua ezarriko dira.

Finantzen ikuspuntutik, egoera garbia du, zor gutxi baititu, eta diruzaintza-gerakina, aldiz, nahikoa delako.

VI.2. ARIAKO UDALAREN FINANTZA-EGOERA

1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

| DIRUSARRERAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 1.267.500 | 1.267.500 | 734.996 | 4.417,41 | 57,99 |
| 2. Zeharkako zergak | 737.000 | 737.000 | 767.945 | 4.615,44 | 104,20 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 1.072.000 | 1.072.000 | 1.081.906 | 6.502,39 | 100,92 |
| 4. Transferentzia arruntak | 2.590.000 | 2.590.000 | 2.372.439 | 14.258,65 | 91,60 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 242.832 | 242.832 | 164.606 | 989,30 | 67,79 |
| 6. Inbertsio errealak besterentzea | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 7. Kapital-transferentziak | 3.329.600 | 3.329.600 | 480.000 | 2.884,86 | 14,42 |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| DIRUSARRERAK, GUZTIRA | 9.238.932 | 9.238.932 | 5.601.892 | 33.668,05 | 60,63 |

| GASTUAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen lansariak | 284.500 | 284.500 | 287.718 | 1.729,22 | 101,13 |
| 2. Ondasun arruntak eta zerb. esk. | 1.726.500 | 1.726.500 | 1.388.574 | 8.345,5 | 80,43 |
| 3. Interesak | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 4. Transferentzia arruntak | 1.177.855 | 1.177.855 | 1.138.321 | 6.841,45 | 96,64 |
| 6. Inbertsio errealak | 5.723.482 | 5.723.482 | 1.143.125 | 6.870,32 | 19,97 |
| 7. Kapital-transferentziak | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 326.595 | 326.595 | 326.595 | 1.962,88 | 100,00 |
| GASTUAK, GUZTIRA | 9.238.932 | 9.238.932 | 4.284.333 | 25.749,36 | 46,37 |
| ALDEAK | 0 | 0 | 1.317.559 | 7.918,69 | |

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## VII. ARIBEKO UDALA

### VII.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Aribeko Udalaren 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

**VII.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez**

Honekin batera doa 1999ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak.

**VII.1.2. Ondare-egoeraren agerpena**

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1994koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1999ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

**VII.1.3. Legezkotasuna**

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz burutu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze formal antzeman diren.

**VII.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa**

Aribeko Udalak finantza-egoera garbia du 1999ko abenduaren 31n, ia zorrik gabea. Aurrezki garbiak 1,9 milioi pezeta egiten du; diruzaintza-gerakina, aldiz, 44 milioikoa da.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake Aribeko Udalak modu egokian kudeatzen dituela aurrekontuak, administrazio-ikuspegi batetik begiratuz. Hala ere, honako hau du beharrezko:

• Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

• Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, bereziki inbertsio errealen alorretan.

• Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

• Informazio-prozesuak abiaraztea jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen segimendua egiteko:

a) Ekitaldi bakoitzeko gastuak eta dirusarrerak proiektuak irauten duen bitartean. Bertan adieraziko dira kontusaila, aurrekontua eta aitortutako obligazioak eta likidatutako eskubideak.

b) Dirusarreretako finanzazio-koefizientea eta desbideraketak, bai metatuak bai urte horri egotzi beharrekoak.

• Gastu guztietarako, edozein direla ere, behar den egiaztagiria eskatu behar da.

• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributu-kontzeptuen erroldeak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta errekargua ezarriko dira.

Finantzen ikuspuntutik, erabat garbia du, ia zorrik ere ez baitu eta diruzaintza-gerakina adierazgarria baita.

VII.2. ARIBEKO UDALAREN FINANTZA-EGOERA

1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

| DIRUSARRERAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 923.000 | 923.000 | 920.076 | 5.529,77 | 99,68 |
| 2. Zeharkako zergak | 512.000 | 512.000 | 564.176 | 3.390,77 | 110,19 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 873.700 | 873.700 | 881.692 | 5.299,08 | 100,91 |
| 4. Transferentzia arruntak | 2.634.000 | 2.634.000 | 2.539.931 | 15.265,29 | 96,43 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 580.000 | 580.000 | 323.518 | 1.944,38 | 55,78 |
| 6. Inbertsio errealak besterentzea | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 7. Kapital-transferentziak | 37.535.461 | 37.535.461 | 33.755.027 | 202.871,80 | 89,93 |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 22.072.279 | 22.072.279 | 0 | 0,00 | |
| DIRUSARRERAK, GUZTIRA | 65.130.440 | 65.130.440 | 38.984.420 | 234.301,08 | 59,86 |

| GASTUAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen lansariak | 478.592 | 478.592 | 473.231 | 2.844,18 | 98,88 |
| 2. Ondasun arruntak eta zerb. esk. | 1.848.000 | 1.848.000 | 1.682.365 | 10.111,22 | 91,04 |
| 3. Interesak | 0 | 0 | 119 | 0,72 | |
| 4. Transferentzia arruntak | 1.250.942 | 1.250.942 | 1.116.952 | 6.713,02 | 89,29 |
| 6. Inbertsio errealak | 60.890.738 | 60.890.738 | 3.046.512 | 18.309,91 | 5,00 |
| 7. Kapital-transferentziak | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 662.168 | 662.168 | 0 | 0,00 | |
| GASTUAK, GUZTIRA | 65.130.440 | 65.130.440 | 6.319.179 | 37.979,03 | 9,70 |
| ALDEAK | 0 | 0 | 32.665.241 | 196.322,05 | |

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**VIII. GARAIOAKO UDALA**

VIII.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Garaioako Udalaren 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

**VIII.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez**

Honekin batera doa 1999ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak.

**VIII.1.2. Ondare-egoeraren agerpena**

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa, 1994koa, gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1999ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

**VIII.1.3. Legezkotasuna**

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz burutu da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze formal antzeman diren.

**VIII.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa**

Garaioako Udalak finantza-egoera garbia du 1999ko abenduaren 31n, ia zorrik gabea. Aurrezki garbiak 21,1 milioi pezeta egiten du ekitaldia ixtean, eta diruzaintza-gerakina, aldiz, 46 milioikoa da.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake Garaioako Udalak modu egokian kudeatzen dituela aurrekontuak, administrazio-ikuspegi batetik begiratuz. Hala ere, honako hau du beharrezko:

• Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

• Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, bereziki inbertsio errealen alorretan.

• Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

• Informazio-prozesuak abiaraztea jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen segimendua egiteko:

a) Ekitaldi bakoitzeko gastuak eta dirusarrerak proiektuak irauten duen bitartean. Bertan adieraziko dira kontusaila, aurrekontua eta aitortutako obligazioak eta likidatutako eskubideak.

b) Dirusarreretako finanzazio-koefizientea eta desbideraketak, bai metatuak bai urte horri egotzi beharrekoak.

• Gastu guztietarako, edozein direla ere, behar den egiaztagiria eskatu behar da.

• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributu-kontzeptuen erroldeak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta errekargua ezarriko dira.

Finantzen ikuspuntutik, behar den moduko egoera du, ia zorrik ez baitu eta diruzaintza-gerakina adierazgarria baita.

VIII.2. GARAIOAKO UDALAREN FINANTZA-EGOERA

1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

| DIRUSARRERAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 958.000 | 958.000 | 960.719 | 5.774,04 | 100,28 |
| 2. Zeharkako zergak | 1.044.000 | 1.044.000 | 1.009.628 | 6.067,99 | 96,71 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 21.040.532 | 21.040.532 | 21.215.690 | 127.508,86 | 100,83 |
| 4. Transferentzia arruntak | 7.164.308 | 7.164.308 | 7.185.917 | 43.188,23 | 100,30 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 1.120.000 | 1.120.000 | 1.049.666 | 6.308,62 | 93,72 |
| 6. Inbertsio errealak besterentzea | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 7. Kapital-transferentziak | 53.558.348 | 53.558.348 | 54.162.691 | 325.524,33 | 101,13 |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 6.724.024 | 6.724.024 | 0 | 0,00 | |
| DIRUSARRERAK, GUZTIRA | 91.609.212 | 91.609.212 | 85.584.311 | 514.372,07 | 93,42 |

| GASTUAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen lansariak | 6.395.152 | 6.395.152 | 6.392.520 | 38.419,82 | 99,96 |
| 2. Ondasun arruntak eta zerb. esk. | 4.111.000 | 4.111.000 | 3.593.936 | 21.599,99 | 87,42 |
| 3. Interesak | 0 | 0 | 352 | 2,12 | |
| 4. Transferentzia arruntak | 357.660 | 357.660 | 278.391 | 1.673,16 | 77,84 |
| 6. Inbertsio errealak | 80.487.679 | 80.487.679 | 40.431.762 | 242.999,78 | 50,23 |
| 7. Kapital-transferentziak | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 257.721 | 257.721 | 0 | 0,00 | |
| GASTUAK, GUZTIRA | 91.609.212 | 91.609.212 | 50.696.961 | 304.694,87 | 55,34 |
| ALDEAK | 0 | 0 | 34.887.350 | 209.677,20 | |

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## IX. GARRALDAKO UDALA

IX.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Garraldako Udalaren 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

**IX.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez**

Honekin batera doa 1999ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak.

**IX.1.2. Ondare-egoeraren agerpena**

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1994koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1999ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

**IX.1.3. Legezkotasuna**

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze formal antzeman diren.

**IX.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa**

Garraldako Udalak finantza-egoera garbia du 1999ko abenduaren 31n, ia zorrik gabea. Aurrezki garbiak 41,3 milioi pezeta egiten du ekitaldia ixtean, eta diruzaintza-gerakina, aldiz, 42,3 milioikoa da.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake Garraldako Udalak modu egokian kudeatzen dituela aurrekontuak, administrazio-ikuspegi batetik begiratuz. Hala ere, honako hau du beharrezko:

• Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

• Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, bereziki inbertsio errealen eta kapital-transferentzien alorretan.

• Ekitaldian likidatutako eskubideak aurrekontuko sailkapenaren arabera sailkatzea, ondotik heldu den moduan, batez ere oihan-enkanteei dagokienez: aurrekontuan sartutakoak, 5. kapituluan (Ondareko dirusarrerak); eta likidatuak, 3. kapituluan (Tasak eta bestelako dirusarrerak).

• Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

• Informazio-prozesuak abiaraztea jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen segimendua egiteko:

a) Ekitaldi bakoitzeko gastuak eta dirusarrerak proiektuak irauten duen bitartean. Bertan adieraziko dira kontusaila, aurrekontua eta aitortutako obligazioak eta likidatutako eskubideak.

b) Dirusarreretako finanzazio-koefizientea eta desbideraketak, bai metatuak bai urte horri egotzi beharrekoak.

• Gastu guztietarako, edozein direla ere, behar den egiaztagiria eskatu behar da.

• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributu-kontzeptuen erroldeak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta errekargua ezarriko dira.

Finantzen ikuspuntutik, egoera erabat garbia du, ia zorrik ez baitu eta diruzaintza-gerakina garrantzitsua baita.

IX.2. GARRALDAKO UDALAREN FINANTZA-EGOERA

1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

| DIRUSARRERAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 1.923.735 | 1.923.735 | 1.923.613 | 11.561,15 | 99,99% |
| 2. Zeharkako zergak | 1.967.000 | 1.967.000 | 1.760.746 | 10.582,30 | 89,51% |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 5.966.067 | 5.966.067 | 43.239.332 | 259.873,62 | 724,75% |
| 4. Transferentzia arruntak | 17.830.000 | 17.830.000 | 19.131.385 | 114.981,94 | 107,30% |
| 5. Ondare dirusarrerak | 27.324.000 | 27.324.000 | 2.307.457 | 13.868,10 | 8,44% |
| 6. Inbertsio errealak besterentzea | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 7. Kapital-transferentziak | 57.045.539 | 57.045.539 | 22.989.405 | 138.169,11 | 40,30% |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 2.630.280 | 2.630.280 | 2.630.280 | 15.808,30 | 100,00% |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| DIRUSARRERAK, GUZTIRA | 114.686.621 | 114.686.621 | 93.982.218 | 564.844,51 | 81,95% |

| GASTUAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen lansariak | 8.080.000 | 8.080.000 | 8.055.278 | 48.413,20 | 99,69% |
| 2. Ondasun arruntak eta zerb. esk. | 12.094.374 | 12.094.374 | 16.223.730 | 97.506,58 | 134,14% |
| 3. Interesak | 0 | 0 | 1.270 | 7,63 | |
| 4. Transferentzia arruntak | 2.136.000 | 2.136.000 | 2.758.060 | 16.576,27 | 129,12% |
| 6. Inbertsio errealak | 89.287.850 | 89.287.850 | 40.571.734 | 243.841,03 | 45,44% |
| 7. Kapital-transferentziak | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 2.630.280 | 2.630.280 | 2.630.116 | 15.807,32 | 99,99% |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 458.117 | 458.117 | 221.045 | 1.328,51 | 48,25% |
| GASTUAK, GUZTIRA | 114.686.621 | 114.686.621 | 70.461.233 | 423.480,54 | 61,44% |
| ALDEAK | 0 | 0 | 23.520.985 | 141.363,97 | |

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## X. ORBAITZETAKO UDALA

X.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Orbaitzetako Udalaren 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

### X.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doa 1999ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak. Dena den, 8.607.703 pezeta sartu dira Dirusarreretako 4. kapituluaren likidazioan, transferentzia arruntak balira bezala, kapital-transferentzia bidez likidatutako eskubideak izan arren (Dirusarreretako 7. kapitulua).

### X.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1994koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1999ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

### X.1.3. Legezkotasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze formal antzeman diren.

### X.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Orbaitzetako Udalak finantza-egoera garbia du 1999ko abenduaren 31n, zorrik gabea. Aurrezki garbiak 15,4 milioi pezeta egiten du ekitaldia ixtean, baina 6,8 milioi pezetara murriztu behar da, 8,6 milioiko kapital-transferentziaren bidez, birsailkapen bat proposatu baita. Diruzaintza-gerakina 40,3 milioikoa da.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake Orbaitzetako Udalak modu egokian kudeatzen dituela aurrekontuak, administrazio-ikuspegi batetik begiratuz. Hala ere, honako hau du beharrezko:

• Kontabilitate sistema osatzea, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

• Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, bereziki inbertsio errealen alorretan.

• Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

• Informazio-prozesuak abiaraztea jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen segimendua egiteko:

a) Ekitaldi bakoitzeko gastuak eta dirusarrerak proiektuak irauten duen bitartean. Bertan adierazi-ko dira kontusaila, aurrekontua eta aitortutako obligazioak eta likidatutako eskubideak.

b) Dirusarreretako finanzazio-koefizientea eta desbideraketak, bai metatuak bai urte horri egotzi beharrekoak.

• Gastu guztietarako, edozein direla ere, behar den egiaztagiria eskatu behar da.

• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributu-kontzeptuen erroldeak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta errekargua ezarriko dira.

Finantzen ikuspuntutik, behar den moduko egoera du, ia zorrik ez baitu eta diruzaintza-gerakina garrantzitsua baita.

X.2. ORBAITZETAKO UDALAREN FINANTZA-EGOERA

1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

| DIRUSARRERAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 3.770.000 | 3.770.000 | 3.744.151 | 22.502,80 | 99 |
| 2. Zeharkako zergak | 1.000.000 | 1.000.000 | 1.088.236 | 6.540,43 | 109 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 6.242.667 | 6.242.667 | 5.901.007 | 35.465,77 | 95 |
| 4. Transferentzia arruntak | 96.080.676 | 96.080.676 | 17.285.819 | 103.889,86 | 18 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 3.060.931 | 3.060.931 | 3.139.999 | 18.871,77 | 103 |
| 6. Inbertsio errealak besterentzea | 0 | 0 | 0 | 0 | |
| 7. Kapital-transferentziak | 0 | 0 | 0 | 0 | |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 39.719.084 | 39.719.084 | 0 | 0 | 0 |
| DIRUSARRERAK, GUZTIRA | 149.873.358 | 149.873.358 | 31.159.212 | 187.270,64 | 21 |

| GASTUAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen lansariak | 7.061.865 | 7.061.865 | 6.963.299 | 41.850,27 | 99 |
| 2. Ondasun arruntak eta zerb. esk. | 11.066.034 | 11.066.034 | 7.441.283 | 44.723,01 | 67 |
| 3. Interesak | 0 | 0 | 0 | 0 | |
| 4. Transferentzia arruntak | 1.754.374 | 1.754.374 | 1.352.941 | 8.131,34 | 77 |
| 6. Inbertsio errealak | 127.491.085 | 127.491.085 | 11.896.830 | 71.501,39 | 9 |
| 7. Kapital-transferentziak | 500.000 | 500.000 | 500.000 | 3.005,06 | 100 |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 2.000.000 | 2.000.000 | 0 | 0 | 0 |
| GASTUAK, GUZTIRA | 149.873.358 | 149.873.358 | 28.154.353 | 169.211,07 | 19 |
| ALDEAK | 0 | 0 | 3.004.859 | 18.059,57 | |

X.3. ELECTRA DE ORBAITZETA S.L.REN FINANTZA-EGOERA

Electra de Orbaitzeta S.L. pertsona bakarreko sozietatea da, udalaren jabetzapekoa, eta haren helburua da argi-indarra banatzeko udalaren zerbitzu publikoa egitea.

Sozietate horren eraketa Udalaren Kudeaketa Batzordeak onetsi zuen 1999ko martxoaren 3ko bilkuran.

1999ko azaroaren 18an, Udalak argi-indarra jaulkitzeko lineak laga zizkion, nahiz eta 1999an sozietate horrek jardun ez duen.

**X.3.1. Egoera-balantzea, 1999ko abenduaren 31n (pezetatan)**

| AKTIBOA | | mila pezeta |
|---|---|---|
| B) IBILGETUA | -4.029 | |
| I. Establezimendu gastuak | | 15.971 |
| II. Ibelgetu ez-materialak | | -20.000 |
| D) AKTIBO IBILKORRA | 504.236 | |
| VII. Diruzaintza | | 504.236 |
| AKTIBOA, GUZTIRA | 500.207 | |

| PASIBOA | | mila pezeta |
|---|---|---|
| A) KAPITAL HARPIDETUA | 500.207 | |
| I. Kapital harpidetua | | 500.000 |
| VI. Galdu-irabaziak | | 207 |
| PASIBOA, GUZTIRA | 500.207 | |

**X.3.2. 1999ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko galdu-irabazien kontua**

| ZOR | mila pezeta |
|---|---|
| A) GASTUAK | 46 |
| Finantza-emaitza positiboak | 253 |
| Jarduera arruntetako mozkinak | 253 |
| Zerga aurreko mozkinak | 253 |
| Sozietateen gaineko zerga | 46 |
| Ekitaldiko mozkinak | 207 |

| HARTZEKO | mila pezeta |
|---|---|
| B) DIRUSARRERAK | 253 |
| Ustiatzeagatiko galerak | 0 |
| Beste korritu eta antzeko dirusarrerak | 253 |

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**XI. ORBARAKO UDALA**

XI.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Orbarako Udalaren 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

**XI.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez**

Honekin batera doa 1999ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak, sortzapen printzipioa honako honetan aplikatu ez duela salbuetsita: 1998an oihan loteen herri aprobetxamenduerako esleipena egin zen, baina 1999ra arte ez dira aitortu, 20.651.814 pezetako kobrantzaren bidez, jasotako eskubideak.

**XI.1.2. Ondare-egoeraren agerpena**

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1994koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1999ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

**XI.1.3. Legezkotasuna**

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko- finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz burutu da, nahiz eta aurrekontuaren onespenerako eta haren ordainketarako epeak bete ez direla antzeman den.

**XI.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa**

Orbarako Udalak finantza-egoera garbia du 1999ko abenduaren 31n, zorrik gabea. Aurrezki garbiak 21,6 milioi pezeta egiten du ekitaldia ixtean, eta diruzaintza-gerakina, aldiz, 37,5 milioikoa da.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake Orbarako Udalak modu egokian kudeatzen dituela aurrekontuak, administrazio-ikuspegi batetik begiratuz. Hala ere, honako hau du beharrezko:

• Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

• Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, bereziki inbertsio errealen eta kapital-transferentzien alorretan.

• Kapital-transferentzietako 7. kapituluan sartzea inbertsio errealak finantzatzeko aurrekontuetako dirulaguntzak.

• Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

• Gastu guztietarako, edozein direla ere, behar den egiaztagiria eskatu behar da.

• Alkateak libramendu guztiak sina ditzala eskatzea.

• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributu-kontzeptuen erroldeak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta errekargua ezarriko dira.

Finantzen ikuspuntutik, behar den moduko egoera du, ia zorrik ez baitu eta diruzaintza-gerakina garrantzitsua baita.

XI.2. ORBARAKO UDALAREN FINANTZA-EGOERA

1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

| DIRUSARRERAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 1.469.000 | 1.469.000 | 1.405.233 | 8.445,62 | 95,66 |
| 2. Zeharkako zergak | 100.000 | 100.000 | 0 | 0,00 | 0,00 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 207.483 | 207.483 | 205.526 | 1.235,24 | 99,06 |
| 4. Transferentzia arruntak | 45.159.570 | 45.159.570 | 2.378.993 | 14.298,04 | 5,27 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 21.700.086 | 21.700.086 | 21.675.408 | 130.271,83 | 99,89 |
| 6. Inbertsio errealak besterentzea | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 7. Kapital-transferentziak | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 13.000.000 | 13.000.000 | 0 | 0,00 | 0,00 |
| DIRUSARRERAK, GUZTIRA | 81.636.139 | 81.636.139 | 25.665.160 | 154.250,72 | 31,44 |

| GASTUAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen lansariak | 554.407 | 554.407 | 460.002 | 2.764,67 | 82,97 |
| 2. Ondasun arruntak eta zerb. esk. | 5.130.414 | 5.130.414 | 2.886.697 | 17.349,40 | 56,27 |
| 3. Interesak | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 4. Transferentzia arruntak | 749.136 | 749.136 | 749.256 | 4.503,12 | 100,02 |
| 6. Inbertsio errealak | 69.218.962 | 69.218.962 | 450.888 | 2.709,89 | 0,65 |
| 7. Kapital-transferentziak | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 1.983.220 | 1.983.220 | 0 | 0,00 | 0,00 |
| GASTUAK, GUZTIRA | 77.636.139 | 77.636.139 | 4.546.843 | 27.327,08 | 5,86 |
| ALDEAK | 4.000.000 | 4.000.000 | 21.118.317 | 126.923,64 | |

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## XII. HIRIBERRI-AEZKOAKO UDALA

XII.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Hiriberri-Aezkoako Udalaren 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

### XII.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doa 1999ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak egindako eragiketak.

### XII.1.2. Ondare-egoeraren agerpena

Ondare-kontabilitaterik ezak eta udal inbentarioa –1994koa– gaurkotu gabe egoteak ezinezko egiten digute Udalaren 1999ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

### XII.1.3. Legezkotasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da, nahiz eta aurrekontu alorreko hainbat ez-betetze formal antzeman diren.

### XII.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa

Hiriberri-Aezkoako Udalak finantza-egoera garbia du 1999ko abenduaren 31n: zorrak 1,7 milioi pezeta egiten du; aurrezki garbiak, ekitaldia ixtean, 1,5 milioi; eta diruzaintza-gerakinak, aldiz, 5,7 milioi.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake Hiriberri-Aezkoako Udalak modu egokian kudeatzen dituela aurrekontuak, administrazio-ikuspegi batetik begiratuz. Hala ere, honako hau du beharrezko:

• Kontabilitate sistema osatu, udal errealitatearen ikuspegi osoa ahalbidetzeko.

• Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, bereziki inbertsio errealen alorretan.

• Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

• Informazio-prozesuak abiaraztea jasotako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren gastu eta inbertsioen segimendua egiteko:

a) Ekitaldi bakoitzeko gastuak eta dirusarrerak proiektuak irauten duen bitartean. Bertan adieraziko dira kontusaila, aurrekontua eta aitortutako obligazioak eta likidatutako eskubideak.

b) Dirusarreretako finanzazio-koefizientea eta desbideraketak, bai metatuak bai urte horri egotzi beharrekoak.

• Gastu guztietarako, edozein direla ere, behar den egiaztagiria eskatu behar da.

• Organo eskudunak onetsi behar ditu tributu-kontzeptuen erroldeak; horretaz gain, egin beharreko argitalpen-iragarkiak egin behar dira, kobratzeko borondatezko epea adierazteko. Epe hori bukatu ondoren, legez ezarritako korrituak eta errekargua ezarriko dira.

Finantzen ikuspuntutik, egoera garbia du, zor gutxi baititu eta diruzaintza-gerakina egokia baita.

XII.2. HIRIBERRI-AEZKOAKO UDALAREN FINANTZA-EGOERA

1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

| DIRUSARRERAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 2.009.600 | 2.009.600 | 2.081.585 | 12.510,58 | 103,58 |
| 2. Zeharkako zergak | 865.000 | 865.000 | 880.356 | 5.291,05 | 101,78 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 1.620.768 | 1.620.768 | 1.796.430 | 10.796,76 | 110,84 |
| 4. Transferentzia arruntak | 4.613.656 | 4.613.656 | 4.582.891 | 27.543,73 | 99,33 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 683.000 | 683.000 | 500.689 | 3.009,20 | 73,31 |
| 6. Inbertsio errealak besterentzea | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 7. Kapital-transferentziak | 2.062.090 | 2.062.090 | 1.951.933 | 11.731,35 | 94,66 |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 5.940.212 | 5.940.212 | 0 | 0,00 | |
| DIRUSARRERAK, GUZTIRA | 17.794.326 | 17.794.326 | 11.793.884 | 70.882,67 | 66,28 |

| GASTUAK | Aurrekontua Hasierakoa | Aurrekontua Behin betikoa | Likidatutako eskubideak Pezetak | Likidatutako eskubideak Euroak | Betetako % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen lansariak | 928.920 | 928.920 | 887.474 | 5.333,83 | 95,54 |
| 2. Ondasun arruntak eta zerb. esk. | 7.187.281 | 7.187.281 | 4.325.268 | 25.995,38 | 60,18 |
| 3. Interesak | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 4. Transferentzia arruntak | 3.012.690 | 3.012.690 | 3.129.448 | 18.808,36 | 103,88 |
| 6. Inbertsio errealak | 5.979.339 | 5.979.339 | 5.624.455 | 33.803,66 | 94,06 |
| 7. Kapital-transferentziak | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 686.096 | 686.096 | 507.890 | 3.052,48 | |
| GASTUAK, GUZTIRA | 17.794.326 | 17.794.326 | 14.474.535 | 86.993,71 | 81,34 |
| ALDEAK | 0 | 0 | (2.680.651) | (16.111,04) | |

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**XIII. AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

XIII.1. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Aezkoako Batzarre Nagusiaren 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aztertu dugu.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta prozedurak aplikatu dira.

Eginiko berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau agertuko dugu:

**XIII.1.1. Aurrekontuaren likidazioari dagokionez**

Honekin batera doa 1999ko aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko azalpena, eta behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian Batzarre Nagusiak egindako eragiketak.

**XIII.1.2. Ondare-egoeraren agerpena**

Ondare-kontabilitaterik ezak ezinezko egiten digu Batzarrearen ondare-egoerari buruzko iritzia ematea. Hala ere, 1999ko ekitaldiko inbentarioaren aldaketen egunkarian behar bezala islatu dira ekitaldian gertatutako aldaketak.

**XIII.1.3. Legezkotasuna**

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz burutu da; dena den, aurrekontu-kredituen izaera mugatzailearen gaineko aurrekontuetako kontusailen esparruan hainbat ez-betetze arin antzeman dira.

**XIII.1.4. Egoera ekonomiko-finantzarioa**

Aezkoako Batzarre Nagusiak finantza-egoera garbia du 1999ko abenduaren 31n, zor txikia baitu (% 1,4). Aurrezki garbiak 186,8 milioi pezeta egiten du, eta diruzaintza-gerakina, aldiz, 292,1 milioikoa da.

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genezake Aezkoako Batzarre Nagusiak aurrekontuak modu egokian kudeatzen dituela, administrazio-ikuspegi batetik begiratuz, baina honako hau du beharrezko:

• Aurrekontutze-teknikak hobetzea, aurrekontuan jasotako aurreikuspenak benetan bete ahal izateko, batez ere inbertsio errealen zein transferentzien alorretakoak.

• Beharrezkoak diren prozedurak ezartzea aurrekontu-kreditu nahiko dagoela egiaztatzeko, gastu-obligazio bat aitortu edo indarreko legeriaren araberako aurrekontu-aldaketak egin baino lehen.

• Gizarte Segurantza dela-eta Batzarrearen kargura egindako gastuak kontabilizatzea aurrekontuko 1. kapituluko gastuetan, eta ez aurrekontuz kanpoko kontuetan. Aurrekontuz kanpoko gastutzat joko da bakarrik baldin eta Gizarte Segurantzaren gastua langilearen kargura egiten bada.

Finantzen ikuspuntutik, egoera oso garbia du, ia zorrik ere ez baitu eta diruzaintza-gerakina garrantzitsua baita.

XIII.2. AEZKOA IBARREKO BATZARRE NAGUSIAREN FINANTZA-EGOERA

1999ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

| | Aurrekontua | | Likidatutako eskubideak | | Betetako |
|---|---|---|---|---|---|
| DIRUSARRERAK | Hasierakoa | Behin betikoa | Pezetak | Euroak | % |
| 1. Zuzeneko zergak | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 2. Zeharkako zergak | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 550.000 | 550.000 | 952.892 | 5.727,00 | 173,25% |
| 4. Transferentzia arruntak | 15.216.426 | 16.590.065 | 9.911.441 | 59.568,96 | 59,74% |
| 5. Ondare dirusarrerak | 128.060.000 | 128.060.000 | 222.996.272 | 1.340.234,59 | 174,13% |
| 6. Inbertsio errealak besterentzea | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 7. Kapital-transferentziak | 39.452.200 | 39.452.200 | 4.814.998 | 28.938,72 | 12,20% |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 500.000 | 0 | 0,00 | 0,00% |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| DIRUSARRERAK, GUZTIRA | 183.278.626 | 185.152.265 | 238.675.603 | 1.434.469,26 | 128,91% |

| | Aurrekontua | | Likidatutako eskubideak | | Betetako |
|---|---|---|---|---|---|
| GASTUAK | Hasierakoa | Behin betikoa | Pezetak | Euroak | % |
| 1. Langileen lansariak | 24.052.815 | 24.552.815 | 13.485.917 | 81.051,99 | 54,93% |
| 2. Ondasun arruntak eta zerb. esk. | 17.022.700 | 17.022.700 | 15.573.158 | 93.596,56 | 91,48% |
| 3. Interesak | 30.000 | 30.000 | 162.050 | 973,94 | 540,17% |
| 4. Transferentzia arruntak | 25.035.930 | 26.409.569 | 15.340.192 | 92.196,41 | 58,09% |
| 6. Inbertsio errealak | 71.478.115 | 71.478.115 | 35.349.669 | 212.455,79 | 49,46% |
| 7. Kapital-transferentziak | 43.150.000 | 43.150.000 | 25.261.318 | 151.823,58 | 58,54% |
| 8. Finantza-aktiboen aldaketa | 0 | 0 | 0 | 0,00 | |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 2.509.066 | 2.509.066 | 2.509.066 | 15.079,79 | 100,00% |
| GASTUAK, GUZTIRA | 183.278.626 | 185.152.265 | 107.681.370 | 647.178,07 | 58,16% |
| ALDEAK | 0 | 0 | 130.994.233 | 787.291,20 | |

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK**

Abaurregain, Abaurrepe, Aria, Orbara, Orbaitzeta, Hiriberri, Garralda, Garaioa eta Aribeko Udalek eta Aezkoa ibarreko Batzarre Nagusiak honako iruzkin hauek aurkeztu dizkiote Kontuen Ganbarari, alegazioetarako epean, Aezkoa ibarreko 1999ko ekitaldiari eta arrazoizkotasun ekonomikoari buruz auditore-taldeak egindako txostenen gainean:

Fiskalizatutako entitateek, oro har, bat egiten dute txostenetako ondorio eta gomendioekin, baina honako zehaztapen hauek egin dituzte:

– Udalek eman beharreko zerbitzuen kudeaketa bateratzeko gomendioari dagokionez, hasierako bilera batzuk egin dira Toki Entitateen Elkargoarekin. Dena den oraindik ezin da zehaztu udalen jarrera bateratze horrekiko, nahiz eta esan daitekeen, momentuz, tentuz ari direla jorratzen gai hori, eta Orbaitzetako Udalak bateratzearen kontrako jarrera agertu duela.

– Udaletako aurrekontuak garatu eta betetzeari eta ondarearen egoerari dagokienez, aipatzekoa da txostenetako gomendioetako asko bete direla jada 2000 urtean, kontabilitate-sistema berriaren ezarpenari esker, eta gainerakoak, kontabilitate-plan berria aplikatzen den neurrian, joanen dira betetzen.

Esker mila egindako lanarengatik, agur t'erdi.

Ariben, 2000ko abenduaren 19an

Ibarreko batzarreburua eta alkateak

---

# Aezkoa ibarreko arrazoizkotasun ekonomikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001ko urtarrilaren 29an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Aezkoa ibarreko arrazoizkotasun ekonomikoari buruz egindako fiskalizazio-txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2001ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Aezkoa ibarreko arrazoizkotasun ekonomikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (24. or.).

**II.** Helburua (25. or.).

**III.** Norainokoa eta mugak (25. or.).

**IV.** Ondorioak eta gomendioak (26. or.).

**V.** Ibarreko udalek eta Batzarre Nagusiak emandako zerbitzu publikoen azterketa (29. or.).

V.1. Hezkuntza (30. or.).

V.2. Gizarte Zerbitzuak (31. or.).

V.3. Hiri hondakin solidoak (31. or.).

V.4. Ur horniketa (31. or.).

V.5. Kirolak (32. or.).

V.6. Kultura (32. or.).

V.7. Mendiak (33. or.).

V.8. Argi-indarraren horniketa (33. or.).

V.9. Egitura (33. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (35. or.)

### I. SARRERA

Aezkoa ibarra Nafarroako iparraldean dago, Iruñetik 60 kilometrotara, eta ondokoek osatzen dute: Abaurregaina, Abaurrepea, Aria, Aribe, Garaioa, Garralda, Orbaitzeta, Orbara eta Hiriberri, eta Aezkoako Batzarre Nagusia. Hona hemen herri horietako biztanleen kopurua eta 1999ko aurrekontua (milioi pezetatan):

| | | 1999an betetako aurrekontua | |
|---|---|---|---|
| Udalerria | Biztanleak | Dirusarrerak | Gastuak |
| Abaurregaina | 174 | 36 | 23 |
| Abaurrepea | 46 | 7 | 7 |
| Aria | 69 | 6 | 4 |
| Aribe | 63 | 39 | 6 |
| Garaioa | 134 | 85 | 51 |
| Garralda | 215 | 94 | 70 |
| Orbaitzeta | 240 | 31 | 28 |
| Orbara | 59 | 26 | 5 |
| Hiriberri-Aezkoa | 154 | 12 | 14 |
| Guztira | 1.154 | 336 | 208 |

Bederatzi herri horiek osatzen dute Aezkoako Mankomunitatea. Ondasun guztien ordezkari eta administratzailea Aezkoako Batzarre Nagusia da.

Txosten honekin, Kontuen Ganbarak buru ematen dio Aezkoa ibarreko azterketari; izan ere, osatu egiten baitu 1999ko aurrekontuen gaineko fiskalizazio finantzarioaren lana, eta lehenbiziko aldiz ematen du ikuspegi orokor bat ibarreko toki entitateek garatu dituzten jardueren eta haien arrazoizkotasunari buruz.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legeari, eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, ibarreko udalek eta Batzarre Nagusiak emandako zerbitzu publikoen azterketari ekin diogu.

Lan honek helburu bikoitza du:

a) Aezkoa ibarra osatzen duten toki entitate bakoitzak ematen dituen zerbitzu publiko oinarrizkoen kostua finkatu, aztertu eta zenbatestea.

b) Aurreko diagnostikoa gogoan, eta kudeaketa publikoan lehenetsi behar den arrazionaltasun hastapena aintzat hartuta, gomendio eta iradokizun zenbait proposatzea, zerbitzu publikoak kostua eta kalitate-maila egokia uztartuz emateko.

Txosten honek, ostera, ez du ibarreko zerbitzuak ematea berrantolatzeko proposamen zehatzak landu eta taxutzea helburu; izan ere, zerikusia duten entitate eta herritarrei baino ez dagokien erabakia delakoan baikaude.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK.

Abaurregain, Abaurrepe, Aria, Aribe, Garaioa, Garralda, Orbaitzeta, Orbara eta Hiriberriko Udalek, eta Aezkoako Batzarre Nagusiak ematen dituzten zerbitzuen kudeaketaren arrazoizkotasunari buruzko azterketa jasotzen da ondoren aurkeztuko dugun txosten honek.

Udalek zein Batzarreak eman eta ibarreko herritarrek bere esku dituzten prestazio eta jarduerak jo ditugu zerbitzutzat.

Entitate txikiak direnez, zail da zerbitzuak aztertu eta identifikatzea; hori dela eta, hurrengo oinarrizko zerbitzuak aztertu ditugu txosten honetan: Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak, Hiri hondakin solidoak, Ur horniketa, Kirolak, Kultura, Mendiak, Argi-indarraren hornidura eta Egitura.

Aurrekontu-kontabilitatetik atera ditugu zerbitzu bakoitzari egotzitako kostuak, egitura-banaketa eta amortizazioen kalkulua kontuan izan gabe.

Aztertu ditugun gainerako zerbitzuei ezin egotzizko gastuak jo ditugu egituratzat.

Azterlan hau burutzeko, ibarreko udalek eta Batzarreak emandako informazioa kualitatiboa erabili dugu –elkarrizketak egin ditugu–, ohiko gastuei eta dirusarrerei buruzko informazio kuantitatiboarekin batera, kontabilitate-erregistroetatik aterea.

Hurrengoek baldintzatu edo mugatu dute txosten hau:

• Sailkapen funtzionalaren garapena kapituluka egiten da, eta horrek zaildu egiten du zerbitzukako kostua ateratzea.

• Entitate bakoitzaren aurrekontuak murritzak dira, eta zail egiten da gastuak zerbitzuei egoztea.

• Amortizazioak dira zerbitzuen kostuaren funtsezko zati bat. Eguneratutako inbentariorik ez dagoenez, ezin izan zaizkio amortizazio horiek zerbitzu bakoitzari egotzi; ondorioz, zerbitzu bakoitzaren amortizazioak kontuan hartuz gero, kostuen kalkulua nabarmen alda daiteke.

• Langileen dedikazioa kontrolatzeko sistemarik ez dagoenez, ezinezko da entitateotan zerbitzuak ematen dituzten pertsonei egotz dakiekeen denbora era fidagarrian banatzea; ondorioz, egituratzat jo ditugu langileen gastuak, funtsean.

Bi arlo nagusitan egituratu dugu txostena: lehenbizikoan, aztertu ditugun zerbitzuen kostua finkatu eta zenbatetsi dugu; bigarrenean, hainbat ondorio eta gomendio atera dugu.

Azterketa lana 2000ko uztaila eta iraila bitartean egin da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu ibarreko udalen eta Batzarre Nagusiaren langile guztiei, beraien lankidetzak gure lana erraztu egin duelako.

## IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.

Atal honetan jarriko ditugu azterlanetik heldu diren ondorio eta gomendio nagusiak. Haiekin batera, toki sektore publikoan garatzen ari diren egoeraren eta joeren azterketa estrategikotik sortu direnak. Hori guztia, noski, burutu dugun azterlanaren norainokoa eta mugak kontuan izanda.

Zerikusia duten alderdi guztiek aztertu, hausnartu eta kontsentsuatzekoak dira ondoren azalduko ditugun gomendioak; ondorioz, eskura dauden baliabideen araberako lehentasunak ezarri behar dira aurretik, eta auzoen jarrera ere aintzat hartu, orobat ibarra osatzen duten toki entitateen erabakiak. Hori guztia, jakina, tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa hobea lortzeko asmoarekin, kalitate-kostu koordenatuen barruan emateko zerbitzuak.

1. Aezkoa ibarraren antolamenduzko egitura politikoak –1.154 biztanle dira, bederatzi udaletan banatuak– baldintzatu egiten du zerbitzuen eskaintza, biztanleak gutxi direlako, eta azalera handia delako –211 $km^2$–, orografia berezi baten baitan.

2. Gaur egun, aurreko toki entitateek ematen dituzten zerbitzuek 121 milioiko gastua egiten dute, hau da, 105.000 pezeta inguru, ibarreko biztanle bakoitzeko.

Gastu horretatik, 63 milioi egitura-gastuak finantzatzeko dira –alegia, ehuneko 52–. Hurrengoei dagokie, funtsean, gastu hori: administrazioko langileei eta bestelako langileei –37 milioi–, eta ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuei –23 milioi–.

Aztertu ditugun gainerako zerbitzuen gastua 58 milioikoa da –hau da, gastu guztiaren ehuneko 48–. Ondoren zehaztuko ditugu, milioika eta ehunekotan:

| Zerbitzua | Zenbat (milioitan) | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Hezkuntza | 13,5 | 23 |
| Gizarte Zerbitzuak | 5,9 | 10 |
| Hiri hondakin solidoak | 0,7 | 1 |
| Ur hornidura | 0,4 | 1 |
| Kirolak | 0,3 | |
| Kultura | 23,8 | 41 |
| Mendiak | 7,9 | 14 |
| Argi-ind. hornidura | 5,6 | 10 |
| Guztira | 58,2 | 100 |

Ikus daitekeenez, aztertutako gastuaren ia-ia ehuneko 65 azaltzen dute hezkuntzak eta kulturak.

3. Aurreko gastuak, aurrekontuen arabera beti ere, 394 milioiko dirusarrerekin finantzatu dira: per capita 340.000 pezeta inguru.

Egindako gastuekin konparatuz gero, 273 milioiko finantzaketa-soberakina ateratzen da.

Kontuan hartzen bada egin dugun zerbitzumailaketa, egiturazkoak 72 milioi dira, eta gainerakoak 322 milioi. Garrantzi handikoak dira mendien aprobetxamenduagatik lortutako dirusarrerak, guztira 290 milioi egiten baitute, hots, 250.000 pezetako dirusarrera per capita.

4. Administrazio-alorreko egitura-gastuak testuinguru egokian kokatzeko asmoz, hurrengo laukian jasoko dugu alor horretan dauden langileen kopurua, bai ibarreko entitateetan, bai ondokoetan ere:

• Biztanle kopuru handixeagoko toki entitateak (Agoitz eta Olazti),

• Baztan; izan ere, nahiz eta askoz ere biztanle gehiago izan, egitura geografikoa eta sakabanaketakoa antzekoak ditu –antolamendu politikoa, ordea, oso bestelakoa da, entitate bakarra baitago ibar osorako.

• Erronkari eta Zaraitzu ibarrak, antzekoak baitira, nahiz eta herritarren eta zabaleraren kopuruak handixeagoak izan.

| Erreferentzia | Aezkoa ibarra | Zaraitzu ibarra | Erronkari ibarra | Baztan | Agoitz | Olazti |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Biztanleak | 1.154 | 1.825 | 1.872 | 7.806 | 1.848 | 1.622 |
| Zabalera ($km^2$) | 211 | 310 | 412,2 | 376,8 | 13,2 | 19,6 |
| Gastuak (milioitan) | 121(4) | 212(3) | 281(2) | 768(2) | 174(2) | 204(1) |
| Idazkariak | 5 | 4 | 4 | 1 | 1 | 1 |
| Ekonomialari/ kontu hartzaileak | – | – | – | 1 | – | 1 |
| Administrari-ofiziala | – | – | 1 | 4 | – | 1 |
| Administrari laguntzailea | – | 1 | – | 1 | 2 | – |
| Zerbitzu anitzak | 2,5 | 3 | 3 | 1 | 1 | 1 |
| Administrazioko langileak, guztira | 7,5 | 8 | 8 | 8 | 4 | 4 |
| Administrazioko langileen kostua biztanleko (pezetatan)(5) | 18.064 | 11.513 | 11.000 | 2.385 | 4.800 | 6.600 |
| Langileak, $km^2$ bakoitzeko | 0,04 | 0,03 | 0,02 | 0,02 | 0,30 | 0,20 |
| Langileak, 100 biztanleko | 0,65 | 0,44 | 0,43 | 0,10 | 0,22 | 0,25 |

(1) 1996an
(2) 1997an
(3) 1998an
(4) 1999an
(5) Kostua zehazteko, mailako lansaria baino ez da erabili.

Datu horiek aztertu, eta, konparazioaren mugak muga, hurrengoak azpimarratuko ditugu:

• Aezkoako datuak bat datoz neurri handi batean Zaraitzu eta Erronkarikoekin, baina kostuen ratioak okerragoak dira Aezkoako kasuan. Egoera hori aurreikustekoa zen, haien egitura administratiboa, tamaina eta sakabanatzea oso antzekoak diren arren, Aezkoa ibarrak biztanle gutxiago baititu.

• Ibarreko administrazio-langileen kopurua alderatutako toki entitate bakunena halako bi da, ia-ia, eta toki entitate bakunetako langileen kopurua antzekoa da. Hala ere, Baztango langile-kopuruarekin –ez egiturarekin– bat datoz, Baztango biztanleen kopurua Aezkoakoena halako zazpi bada ere, ia-ia. Joera bera erakusten du 100 biztanleko langile kopuruaren ratioak.

• Aezkoaren egituran nabarmena da idazkarien kopurua, 5 baititu, Zaraitzu eta Erronkari ibarrek, berriz, biztanle gehiago eta zabalera handiagoa izan arren, launa idazkari dituzte. Baztanekiko aldea are handiagoa da, 4 administrari eta idazkari bakarra du eta. $km^2$-ko langileen ratioa ere negatiboa du gainerakoen aldean, konparatutako gainontzeko entitateena baino askoz txikiagoa bada ere.

Laburbilduz, Zaraitzu eta Erronkari ibarrekin nolabaiteko antza du. Dena den, egoera latzagoa da oso biztanle gutxi dituelako. Aezkoak dituen berezitasunak honako hauetan islatzen dira:

• Idazkari lanpostuak, 10 entitate, ibarreko Batzarre Nagusia barne, egotearen ondorioa.

• Administraririk ez egotea.

• Aurreko egoera dela-eta, idazkariak denbora dezente eman behar izaten du administrazio-beharrizanak betetzen eta jendeari arreta eskaintzen.

Laburbilduz, ibarraren azalera handiak, orografia bereziak, biztanleriaren dentsitate txikia eta egungo antolaketa politikoak –bederatzi udal baititu– ehun biztanleko langile bat eta biztanleko kostua handiagoak izatea dakarte. Halaber, idazkari lanpostuek garrantzi handia dute plantilla barrenean, egungo arautegiari jarraikiz.

5. Egungo baldintzetan, ibarreko udal guztiek banaka ematen dituzte zerbitzu publikoak, oro har. Salbuespenak badira, ordea:

• Gizarte zerbitzu oinarrizkoak, Auñamendiko Mankomunitateak kudeatzen baititu

• Turismoa, Nafarroako Mendebaldeko Pirinioko Turismo Partzuergoak ematen baitu.

• Hiri hondakin solidoak bildu eta tratatzea, Bidausiko Mankomunitatearen esku.

• Hermendien aprobetxamendua, ibarreko Batzarrearen esku.

• Hiltegia, Garraldako Udalak ematen baitu ibar osorako.

• Idazkaritza eta kontabilitate lanak: bost idazkarik egiten dituzte.

6. Gure iritzirako, eta aurreko ondorioak ikusita, egoki litzateke entitate bakarrean biltzea zerbitzuak emateko kudeaketa. Hurrengoak aipa ditzakegu hori zuzenesteko:

• Ibarrean bada ohiko elkarte bat, gutxieneko egitura administratiboa duena: ibarreko Batzarre Nagusia.

• Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak ere horretarako bide ematen du; izan ere, bere 30.3 artikuluak ezarri duenaren arabera, "ohiko elkarteen baitako udalek aipatu elkarteen esku utz dezakete zerbitzuak emateko edo jarduerak burutzeko eskumenen erabilpena".

• Zerbitzuak emateko egungo banaketak, non mota eta izaera orotako entitateak pilatzen diren (udalak, ohiko elkartea, partzuergoa, mankomunitatea eta zerbitzu udalekotua), ez du adierazten zerbitzuak modu arrazionalean ematen direnik.

• Begibistakoa denez, funtsezko zerbitzuei gero eta kalitate handiagoa eskatzeko joera dago.

Hala ere, Batzarreaz besteko unitate administratiboa sortzeko aukera ere azter daiteke: arian-arian eskuratuko lituzke eskumenak, ohiko elkarte bati dagozkionak utzirik Batzarreari.

Azkenik, gure ustez, bateratze horrek ez luke zerbitzuak emateko kostuaren murrizketa nabarmenik ekarriko, epe laburrean bederen; bai, ordea, zerbitzuen egitura arrazoizkoagoa, kalitatea hobetuko lukeena.

7. Arian-arian bereganatu beharko dituzte eskumenak ibarreko Batzarreak edo bestelako administrazio-unitateak; izan ere, giza- eta gauza-baliabideen beharrizanak finkatu beharko dira aurretik, egun daudenekin konparatu, eta ezarpen-egutegia erabaki.

Gure ustez, lehen fasean, administrazio- eta kontabilitate-zereginak bateratu behar dira (idazkaritza, kontu-hartzailetza, diruzaintza, ordainarazpenak eta errentak, derrigorrezko dirubilketa...). Giza-baliabideei eta baliabide informatikoei buruzko aurreikuspenak eskatuko lituzke bateratze horrek.

Hurrengo faseetan, aldiz, egun banaka ematen diren zerbitzuen kudeaketa bateratuari ekin beharko litzaioke. Hurrengoak azpimarratuko ditugu, duten garrantziarengatik:

• Uraren kudeaketa osoa, hiru faseak alegia: alta, banaketa eta saneamendua.

• Oihan aprobetxamenduen kudeaketa; horrek ez du eragotziko baliabideak udal bakoitzari atxikitzea.

• Hirigintza arloko aholkularitza zerbitzuak bateratzea.

Prozesu honek ez du esan nahi egungo udaletan biztanleei arretarik eginen ez zaienik bai langileen bidez, bai komunikazio-sistema berrien bitartez.

Funtsean, eta azken laburpen gisa, ibarra osatzen duten toki entitateek biztanle gutxi izateak, azalera geografikoa handiak, mendi-ingurutzat jota egoteak eta egungo antolaketa politikoak, zerbitzuak emateko egiturekin batera, zera eskatzen dute: zerbitzu publikoen kudeaketa entitate bakarrean bateratzea, egitura arrazoizkoago bat lortzeko, zeinak zerbitzuak emateko kostuak egokituko dituen eta zerbitzuen kalitatea hobetuko duen.

Gure ustez, ibarreko Batzarreak beregana dezake aipatu zeregina, tradizioa eta gutxieneko egitura administratiboa badituelako. Hala ere, beste aukera batzuk ere ez dira baztertzen, Batzarreari ohiko eskumenak bakarrik uzteko.

Abiapuntutzat hartzen baditugu, alde batetik, ibarreko biztanleen eta udalen atxikimendua, eta, bestetik, udal bakoitzaren ohiko eskubideak zaintzea, hauexek beharko lirateke, funtsean, aipatu bateratzerako:

• Giza-baliabideei buruzko azterlan bat egitea, egun dauden langileak abiapuntutzat hartuta, baina beharrizan berriak eta lanpostu jakin batzuk birmoldatzeko aukera baztertu gabe.

• Behar diren gauza-baliabideak aztertzea, ofimatikari buruzkoak batez ere.

• Eskumenak bateratzeko egutegia edo lehentasunak ezartzea. Administrazio-, ekonomia- eta kontabilitate-zereginak zertuko dira lehenbizi; gainerako zerbitzuak gero, arian-arian.

Bateratze prozesuaren zabaltasunak eta zailtasunak, noski, Nafarroako Gobernuaren lankidetza eta aholkularitza galdatzen du.

Azkenik, Ganbara honek uste du, aipatu prozesuaren zailtasunak zailtasun, bateratzearen zuzeneko abantailak handiak izanen direla biztanleentzat, bai finantza-aurrezpenarengatik, bai zerbitzuaren kalitatearen aldetik: Aezkoa ibarreko ongizate-maila hazi egingo litzateke.

## V. IBARREKO UDALEK ETA BATZARRE NAGUSIAK EMANDAKO ZERBITZU PUBLIKOEN AZTERKETA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 29 eta 31. artikuluen arabera, Nafarroako udalerriek eskumen batzuk dituzte, eta zerbitzu batzuk eman behar dituzte; hain zuzen ere, legedia orokorrak gutxienekotzat ezarri dituen haiek.

Hartara, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legeak agintzen duenaren arabera, herritarren beharrizanak betetzeko behar diren zerbitzuak sustatu eta eman behar ditu udalerriak. Lege horren 25 eta 26. artikuluetan, hain zuzen ere, ondokoa ezartzen da:

“25. artikulua.

Udalak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumen-esparruan, jarduera-mota guztiak bultza ditzake, eta herriaren beharrak eta nahiak betetzen lagun dezakeen zerbitzu publiko oro egin.

Udalaren eskumenak, betiere Estatuko eta autonomia erkidegoetako legeen arabera, honako hauek dira:

a) toki publikoetako segurtasuna;

b) hiribideetan ibilgailuen eta gizakien ibilera arautzea;

c) babes zibila, suteak eragoztea eta itzaltzea;

d) hirigintzaren antolaketa, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina; etxebizitzak sustatzea eta kudeatzea; parkeak eta lorategiak, hiribideen zoladura eta baserribide eta estartak zaintzea;

e) ondare historiko-artistikoa;

f) ingurumenaren babesa;

g) hornigaiak, hiltegiak, azokak, merkatuak eta bezeroen eta kontsumitzaileen babesa;

h) osasungarritasun publikoaren babesa;

i) oinarrizko osasun-zerbitzuen kudeaketan parte hartzea;

j) hilerriak eta hileta zerbitzuak;

k)gizarte-zerbitzuak eta sustapenerako zein bergizarteratzeko zerbitzuak betetzea;

l) ur-hornidura eta herriko argiak; kaleak garbitzeko, zaborrak bildu eta tratatzeko zerbitzuak, estolderia eta hondakin-urak tratatzeko zerbitzuak;

m) gizakientzako garraio publikoa;

n) kultura- eta kirol-jarduerak eta kultur etxe eta kiroldegiak; astialdia betetzea; turismoa;

o) irakaskuntzaren programazioan parte hartzea eta ikastetxe publikoak sortu, eraiki eta mantentzeko administrazioarekin elkarlanean aritzea; horien kudeaketa-organoetan esku hartzea eta derrigorrezko eskolatzea betetzeko zaintzan parte hartzea.

26. artikulua.

Udalek bakarrean edo elkarturik, honako zerbitzu hauek bete behar dituzte, betiere:

a) udal guztietan: herriko argiak, hilerria, zabor-bilketa, kaleen garbiketa, edateko uraren etxez etxeko hornidura, estolderia, biztanleguneetako sarbideak, herribideen zoladura eta janari-edarien kontrola.”

Ibarreko udal guztiek ematen dituzte legearen aginduz eman beharreko gutxieneko zerbitzuak; dena den, txosten honetan egituratzat hartu dira horietako batzuk.

Hurrengo laukietan, aztertutako zerbitzuen gastu eta dirusarreren laburpenak emanen ditugu.

GASTUAK

| Entitatea | Hezkuntza | Gizarte zerbitzuak | Hiri hondakin solidoak | Ur hornidura | Kirolak | Kultura | Mendiak | Argi-ind. hornidura | Egitura | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Abaurregaina | 0 | 0 | 34.680 | 170.772 | 0 | 1.187.578 | 209.879 | 0 | 5.091.345 | 6.694.254 |
| Abaurrepea | 0 | 0 | 5.190 | 0 | 0 | 762.576 | 343.674 | 0 | 1.733.214 | 2.844.654 |
| Aria | 0 | 0 | 23.355 | 18.913 | 0 | 576.624 | 78.973 | 0 | 2.116.748 | 2.814.613 |
| Aribe | 0 | 0 | 5.190 | 55.448 | 0 | 643.668 | 66.480 | 0 | 2.501.881 | 3.272.667 |
| Garaioa | 0 | 0 | 65.190 | 88.602 | 0 | 1.458.104 | 849.271 | 0 | 4.466.108 | 6.927.275 |
| Garralda | 7.305.775 | 0 | 67.470 | 92.154 | 0 | 3.962.151 | 480.296 | 3.328.191 | 10.775.156 | 26.011.193 |
| Orbaitzeta | 273.000 | 0 | 0 | 0 | 0 | 2.055.565 | 132.300 | 2.251.543 | 8.731.322 | 13.443.730 |
| Orbara | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 797.144 | 10.000 | 0 | 1.882.350 | 2.689.494 |
| Hiriberri | 0 | 0 | 10.380 | 0 | 258.624 | 1.123.310 | 43.281 | 0 | 6.906.595 | 8.342.190 |
| Ibarreko Batzarrea | 5.933.793 | 5.923.094 | 515.932 | 0 | 0 | 11.229.896 | 5.732.183 | 0 | 19.038.161 | 48.373.059 |
| Guztira | 13.512.568 | 5.923.094 | 727.387 | 425.889 | 258.624 | 23.796.616 | 7.946.337 | 5.579.734 | 63.242.880 | 121.413.129 |

DIRUSARRERAK

| Entitatea | Hezkuntza | Gizarte zerbitzuak | Hiri hondakin solidoak | Ur hornidura | Kirolak | Kultura | Mendiak | Argi-ind. hornidura | Egitura | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Abaurregaina | 0 | 0 | 0 | 775.345 | 0 | 250.000 | 2.785.650 | 0 | 10.375.192 | 14.186.187 |
| Abaurrepea | 0 | 0 | 0 | 151.048 | 0 | 250.000 | 299.500 | 0 | 3.749.854 | 4.450.402 |
| Aria | 0 | 0 | 0 | 150.047 | 0 | 250.000 | 1.124.527 | 0 | 3.597.318 | 5.121.892 |
| Aribe | 0 | 0 | 0 | 265.000 | 0 | 250.000 | 526.383 | 0 | 4.188.010 | 5.229.393 |
| Garaioa | 0 | 0 | 0 | 73.500 | 0 | 250.000 | 21.044.515 | 0 | 6.715.681 | 28.083.696 |
| Garralda | 9.095.705 | 0 | 0 | 671.268 | 0 | 420.105 | 38.161.315 | 4.039.851 | 14.947.144 | 67.335.388 |
| Orbaitzeta | 186.302 | 0 | 0 | 231.342 | 0 | 583.300 | 2.305.097 | 4.998.900 | 12.725.141 | 21.030.082 |
| Orbara | 0 | 0 | 0 | 41.400 | 0 | 250.000 | 580.750 | 0 | 4.141.196 | 5.013.346 |
| Hiriberri | 0 | 0 | 0 | 56.000 | 0 | 250.000 | 1.487.768 | 0 | 8.048.183 | 9.841.951 |
| Ibarreko Batzarrea | 3.830.227 | 0 | 0 | 0 | 0 | 5.581.214 | 221.269.975 | 0 | 3.179.189 | 233.860.605 |
| Guztira | 13.112.234 | 0 | 0 | 2.414.950 | 0 | 8.334.619 | 289.585.480 | 9.038.751 | 71.666.908 | 394.152.942 |

Ondoren, banan-banan garatuko ditugu aztertu ditugun zerbitzuak.

## V.1. HEZKUNTZA

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legeak ezartzen du udalek irakaskuntzaren programazioan parte hartuko dutela, bai eta ikastetxe publikoak sortu, eraiki eta mantentzeko administrazioarekin elkarlanean aritu, horien kudeaketa-organoetan esku hartu eta derrigorrezko eskolatzea betetzeko zaintzan parte hartu ere.

Ikastetxeak Garraldan metatu dira. Garraldako ikastetxe publikoan lehen eta bigarren hezkuntza irakasten dira. Batez beste 125 ikasle daude; 70 bat Aezkoa ibarreko herrietakoak eta 55 ibarraz kanpoko herrietakoak. Lehen beste ikastetxe publikoa zegoen Hiriberrin, baina, egun, itxita dago.

| Udala | Gastua | Dirusarrera | Aldea |
|---|---|---|---|
| Garralda | 7.305.775 | 9.095.705 | 1.789.930 |
| Orbaitzeta | 273.000 | 186.302 | (86.698) |
| Ibarreko Batzarrea | 5.933.793 | 3.830.227 | (2.103.566) |
| Guztira | 13.512.568 | 13.112.234 | (400.334) |

Ondoko laukian azaltzen dira udal bakoitzaren gastuak eta dirusarrerak.

Garraldan jasotako gastuak instalazioak zaindu eta mantentzeari dagozkio, funtsean (gasolioa, argia, telefonoa eta abar).

Garraldako Udalaren dirusarrerak Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntza bati dagozkio. Eskola-kontzentrazioagatik, eta eskolak emateko instalazioen funtzionamendua, zaintza eta garbiketagatik ematen da aipatu dirulaguntza.

Ibarreko Batzarrearen gastuak ikasleen bekak eta guraso elkartearendako laguntza pagatzeko dirusarrerei dagozkie.

Orbaitzetako Udalaren gastuak eta dirusarrerak oso txikiak dira, eta eskulanei buruzko ikastaro bat antolatzearen ondorioa dira.

IV.2. GIZARTE ZERBITZUAK

Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak hartu ditu bere gain gizarte zerbitzuak, eta haren aurrekontuko defizita, berriz, Aezkoako Batzarre Nagusiak. Defizit hori Aezkoa ibarreko udalei dagokie eta biztanle kopuruaren arabera banatu da. Gainontzeko gastuak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzekin zein etxez etxeko laguntza zerbitzuko tasekin finantzatzen dira.

Ibarreko Batzarreak oinarrizko gizarte zerbitzurako egindako ekarpena 5.923.094 pezetakoa izan da 1999an.

V.3. HIRI HONDAKIN SOLIDOAK

Bidausiko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatean bildu dira Aezkoa ibarreko udalak hiri hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzua emateko.

Tarifa berberak erabiltzen dira udal guztietan, eta Mankomunitateak finkatzen ditu, establezimendu moten arabera.

Hiri hondakin solidoak edukiontzietatik biltzen dira, astean birritan, udaran izan ezik, astean hiru aldiz jasotzen baitira.

Hiri hondakin solidoak Urrozko zabortegian uzten dira.

Mankomunitateak ordainagiriak luzatu eta kobrantza kudeatu egiten du, eta bere gain hartzen du zergadunen berankortasuna. Fakturazioa urtero egin ohi da.

Mankomunitateak erabakitzen du udal bakoitzak jarri behar duen dirua, horietako bakoitzean dauden etxebizitzen eta bestelako establezimenduen kopuruaren arabera.

Ondoko laukian jarriko ditugu udal bakoitzaren gastu-dirusarrerak:

| Udala | Gastua | Dirusarrera | Aldea |
|---|---|---|---|
| Abaurregaina | 34.680 | 0 | (34.680) |
| Abaurrepea | 5.190 | 0 | (5.190) |
| Aria | 23.355 | 0 | (23.355) |
| Aribe | 5.190 | 0 | (5.190) |
| Garaioa | 65.190 | 0 | (65.190) |
| Garralda | 67.470 | 0 | (67.470) |
| Orbaitzeta | 0 | 0 | 0 |
| Orbara | 0 | 0 | 0 |
| Hiriberri | 10.380 | 0 | (10.380) |
| Ibarreko Batzarrea | 515.932 | 0 | (515.932) |
| Guztira | 727.387 | 0 | (727.387) |

Udal bakoitzeko bilketa lanek eta nahita egindako kalteek sortu dituzte gastu horiek.

V.4. UR-HORNIKETA

Banaka ematen du udal bakoitzak ur-horniketaren zerbitzua.

Egun udal batzuek arazoak dituzte ur-hornidura edo uraren kalitatea dela-eta, kloratzen ez delako eta zerbitzu murrizketak daudelako, hein batean sareetako ihesengatik.

Gaur egun, inbertsio-ahaleginean dihardute udalek ur-horniketaren eta saneamenduaren sareak berritzeko. Inbertsio hau 1999rako aurreikusietakoetatik inportantena zen. Dena den, obrak oso atzeraturik daude kontratazio espedienteak atzeratu direlako.

Ibarreko udal bakar batek ere ez du hondakinuren araztegirik.

Horniketagatik eta saneamenduagatik kobratzen dituzten prezioak ez dira homogeneoak. Urari bagagozkio, kontagailurik ez baitute oro har, zenbateko finkoak kobratzen dituzte ezaugarri partikularren arabera (pertsonak etxe bakoitzeko, animaliak, erroldatugabeak, etab.). Arian eta Garraldan kontagailuak dituzte jarrita, horregatik pagatu beharrekoaren zati bat kontsumoaren arabera zehazten da. Fakturazioa urtero egiten da.

Ondoren adieraziko ditugu udal bakoitzaren gastu-dirusarrerak:

| Udala | Gastua | Dirusarrera | Aldea |
|---|---|---|---|
| Abaurregaina | 170.772 | 775.345 | 604.573 |
| Abaurrepea | 0 | 151.048 | 151.048 |
| Aria | 18.913 | 150.047 | 131.134 |
| Aribe | 55.448 | 265.000 | 209.552 |
| Garaioa | 88.602 | 73.500 | (15.102) |
| Garralda | 92.154 | 671.268 | 579.114 |
| Orbaitzeta | 0 | 231.342 | 231.342 |
| Orbara | 0 | 41.400 | 41.400 |
| Hiriberri | 0 | 56.000 | 56.000 |
| Guztira | 425.889 | 2.414.950 | 1.989.061 |

IV.5. KIROLAK

Ondoko laukian jarriko ditugu Aezkoa ibarrean dauden kirol instalazioak:

| | Pilotalekua | | | | Futbol |
|---|---|---|---|---|---|
| Entitatea | Estalia | Irekia | Kiroldegia | Igerilekua | zelaia |
| Abaurregaina | X | – | – | – | X |
| Abaurrepea | – | X | – | – | – |
| Aria | – | X | – | – | – |
| Aribe | – | – | – | – | – |
| Garaioa | X | – | – | – | – |
| Garralda | X | – | X | – | X |
| Orbaitzeta | – | X | – | – | – |
| Orbara | – | – | – | – | – |
| Hiriberri | X | – | – | – | – |

Udalak ez dira apenas kirolaren kudeaketaz arduratzen.

Hiriberriko Udala izan da atal honetan gastuak aurkeztu dituen bakarra; gastu txiki bat izan du pilotaleku estaliaren mantentze-lanengatik.

Udal bakar batek ere ez du dirusarrerarik izan atal honetan.

IV.6. KULTURA

Kulturaren kontzeptupean sartu dira turismoarekin, euskararekin, jaiekin, liburutegiekin eta kultur ekintzekin zerikusia dutenak.

Ibarra osatzen duten udal guztiak sartu dira Nafarroako Mendebaldeko Pirinioko Turismo Partzuergoan, turismoa sustatzeko jarduerak garatzeko ardura harena baita.

Turismoa, sektore ekonomikotzat hartzen badugu, berebiziko garrantzia ari da hartzen ibarreko ekonomian, batez ere kontuan hartzen bada ostatu-egiturak, landetxeak eta kanpinak gutxi direla, turismoaren garapenaren eraginez, ibar mugakideetan duten kopuruaren aldean. Orbaitzetako Udalak kanpaleku bat kudeatzen du 2000ko ekitalditik.

Euskararen arloko jarduerak Aezkoan euskara arian-arian berreskuratzea du xede. Aezkoako Batzarre Nagusiak sustatzen ditu batez ere euskaraz egindako jarduerak.

Herri bakoitzeko jai nagusiek badute sustraia eta tradizioa, eta jende anitz erakartzen dute. Horietaz gainera, beste jai batzuek ere erakartzen dute turismoa, esaterako, ibarreko erromeriak.

Liburutegi edo museorik ez egotea da ibarreko gabezietako bat. Hala ere, aipagarria da 2000ko ekitaldian Orbaitzetako Udalak museo bat jarriko duela.

Ondoko laukian jarriko ditugu udal bakoitzaren gastu-dirusarrerak:

| Udala | Gastua | Dirusarrera | Aldea |
|---|---|---|---|
| Abaurregaina | 1.187.578 | 250.000 | (937.578) |
| Abaurrepea | 762.576 | 250.000 | (512.576) |
| Aria | 576.624 | 250.000 | (326.624) |
| Aribe | 643.668 | 250.000 | (393.668) |
| Garaioa | 1.458.104 | 250.000 | (1.208.104) |
| Garralda | 3.962.151 | 420.105 | (3.542.046) |
| Orbaitzeta | 2.055.565 | 583.300 | (1.472.265) |
| Orbara | 797.144 | 250.000 | (547.144) |
| Hiriberri | 1.123.310 | 250.000 | (873.310) |
| Ibarreko Batzarrea | 11.229.896 | 5.581.214 | (5.648.682) |
| Guztira | 23.796.616 | 8.334.619 | (15.461.997) |

Honela banakatu dira gastuak: jaiak, turismo partzuergoaren ekarpenak, eta gainerakoak barne hartzen dituen beste kontzeptu bat.

| Udala | Jaiak | Partzuergoa | Beste batzuk | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Abaurregaina | 1.016.988 | 112.288 | 58.302 | 1.187.578 |
| Abaurrepea | 725.672 | 36.904 | 0 | 762.576 |
| Aria | 552.490 | 24.134 | 0 | 576.624 |
| Aribe | 576.312 | 67.356 | 0 | 643.668 |
| Garaioa | 1.278.080 | 109.589 | 70.435 | 1.458.104 |
| Garralda | 3.102.878 | 426.693 | 432.580 | 3.962.151 |
| Orbaitzeta | 1.805.743 | 249.822 | 0 | 2.055.565 |
| Orbara | 748.843 | 48.301 | 0 | 797.144 |
| Hiriberri | 1.002.463 | 120.847 | 0 | 1.123.310 |
| Ibarreko Batzarrea | 2.250.000 | 1.385.956 | 7.593.940 | 11.229.896 |
| Guztira | 13.059.469 | 2.581.890 | 8.155.257 | 23.796.616 |

Batzarreko dirusarreren artean, aipatzeko modukoa da Nafarroako Gobernuak euskara teknikariarengatik eta euskarazko jarduerengatik emandako dirulaguntza. Udaletako dirusarrerak, funtsean, Batzarreak udal bakoitzari jaietarako emandako 250.000 pezetei zor zaizkie.

### V.7. MENDIAK

Aezkoa ibarreko udalek eta Batzarreak oihan-aberastasun handia dute, eta oinarrizko finantza-iturria da entitate horientzako.

21.000 hektarea inguruko azalera du Aezkoa ibarrak. Aezkoako Batzarrearen jabetzapekoak dira ibarreko udaletan barrena banatutatako 6.400 hektarea.

Ondoko laukian, entitate bakoitzak likidatutako gastuak eta dirusarrerak agertzen dira.

| Udala | Gastua | Dirusarrera | Aldea |
|---|---|---|---|
| Abaurregaina | 209.879 | 2.785.650 | 2.575.771 |
| Abaurrepea | 343.674 | 299.500 | (44.174) |
| Aria | 78.973 | 1.124.527 | 1.045.554 |
| Aribe | 66.480 | 526.383 | 459.903 |
| Garaioa | 849.271 | 21.044.515 | 20.195.244 |
| Garralda | 480.296 | 28.161.315 | 37.681.019 |
| Orbaitzeta | 132.300 | 2.305.097 | 2.172.797 |
| Orbara | 10.000 | 580.750 | 570.750 |
| Hiriberri | 43.281 | 1.487.768 | 1.444.487 |
| Ibarreko Batzarrea | 5.732.183 | 221.269.975 | 215.537.792 |
| Guztira | 7.946.337 | 289.585.480 | 281.639.143 |

Zerbitzu honetan aintzat hartu diren dirusarrerak oihan-aprobetxamenduen esleipenetatik datoz, funtsean, eta baita, belarretatik, ehiza-barrutietatik eta larreetatik. Mendiak hobetzearren Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzak ere sartu ditugu hor.

Gasturik handienak ongarrien erosketa eta banaketari eta mendien gaineko azterlan profesionalei dagozkie.

### V.8. ARGI-INDARRAREN HORNIKETA

Garralda eta Orbaitzetako udalek egiten dute argi-indarraren banaketa.

Garraldako Udala: Udalak zerbitzu honengatik izandako gastu arruntak 3.328.191 pezeta dira, eta dirusarrerak, berriz, 4.039.851 pezeta. Hiru hilero egiten da ordainagirien fakturazioa, 80 abonatuendako.

Orbaitzetako Udala: 1999an Electra de Orbaitzeta, S.L. sozietatea, Udalarena baita, eratu zen banaketa kudeatzeko, baina 2000ko ekitaldira arte ez da lanean hasi. Udalak zerbitzu honengatik izandako gastu arruntak 2.251.543 pezeta dira, eta dirusarrerak, berriz, 4.998.900 pezeta. Bi hilez behin egiten da ordainagirien fakturazioa, 154 abonatuendako.

### V.9. EGITURA

Lan honen III. idatz-zatian iruzkindu bezala, egituratzat hartu ditugu tamainagatik edo edukiagatik banakatzeko interesik ez zutenak, eta baita zerbitzu orokor edo administraziokoak ere, baldin eta aztertutako zerbitzuen baitan sartu edo banatu ezinekoak badira.

Ondorioz, gainerako zerbitzuetan sartu ez den gastu guztia bilduko da egitura kontzeptupean.

Langileak izanen dira udaletako egitura-zerbitzuen osagai nagusia: gastuaren % 58 egiten baitu. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea da bigarren kapitulua, garrantziaren arabera: gastuaren %37.

Hona udaletako bakoitzean, egituratzat hartuta, zerbitzuan diharduten langileen zerrenda, 1999ko abenduaren 31koa:

Abaurregaina

• Idazkaria (lan-harremanik gabe), Abaurrepean ere ari da.

Abaurrepea

• Idazkaria (lan-harremanik gabe), Abaurregainen ere ari da.

Aria

• Idazkaria (administrazio kontratuduna), Garraldan ere ari da.

Aribe

• Idazkaria (administrazio kontratuduna), Garaioan eta Hiriberrin ere ari da.

Garaioa

• Idazkaria (administrazio kontratuduna), Ariben eta Hiriberrin ere ari da.

Garralda

• Idazkaria (administrazio kontratuduna), Arian ere ari da.

• Zerbitzu anitzetako langilea (funtzionarioa).

Orbaitzeta

• Idazkaria (administrazio kontratuduna), Orbaran ere ari da.

• Zerbitzu anitzetako langilea (lan-kontratuduna lanaldi erdirako).

Orbara

• Idazkaria (administrazio kontratuduna), Orbaitzetan ere ari da.

Hiriberri

• Idazkaria (administrazio kontratuduna), Ariben eta Garaioan ere ari da.

Aezkoa ibarreko Batzarrea

• Idazkaria (administrazio kontratuduna).

• Zerbitzu anitzetako langilea: aldi baterako lan-kontratuduna, lanaldi osoan, 6 hilabeterako.

• Turismo sustatzailea: aldi baterako lan-kontratuduna, lanaldi osoan, 6 hilabeterako.

• Zerbitzuetako arduradunak:

• Iratiko basozaintza-lanak: lau pertsona lau hilabeterako.

• Euskara teknikaria: lan-kontratuduna, Agoitzen ere ari da. Aezkoan astean bitan aritzen da.

Ibarreko eskualdeko hiltegia Garraldan dago eta udalaren jabetzakoa da.

Aezkoa ibarreko udaletan sortzen diren hirigintza-beharrizanei erantzuteko, kanpoko aholkulariak kontratatzen dira, sortzen den lanaren arabera.

Aribe, Garaioa eta Hiriberrin batetik, Garraldan eta Arian bestetik, eta Orbaitzeta eta Orbaran bestetik, idazkari bakarra ari da, eta gastu hori langile-gastutzat hartzen da horietako batean eta transferentziatzat besteetan. Azterketa honen ondorioetarako, lan-gastutzat egotzi zaio bere zatia udal bakoitzari. Hona egindako birsailkapenak:

| Udala | Zenbatekoa |
|---|---:|
| Abaurregaina | 0 |
| Abaurrepea | 0 |
| Aria | 1.027.145 |
| Aribe | 1.029.084 |
| Garaioa | (3.337.924) |
| Garralda | (1.027.145) |
| Orbaitzeta | (699.343) |
| Orbara | 699.343 |
| Hiriberri | 2.308.840 |
| Guztira | 0 |

Abaurregaineko eta Abaurrepeko udalek idazkari bera duten arren, ez da birsailkapenik egin, biek zuzenean pagatzen baitute idazkariak udal bakoitzean egiten duen lana.

Ondoko laukian azalduko dira egitura-gastuak, kontzeptu ekonomikoka:

| Udala | Langileen ordainsariak | Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea | Finantza-gastuak | Transferentzia arruntak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Abaurregaina | 2.893.204 | 1.725.768 | 0 | 472.373 | 5.091.3450 |
| Abaurrepea | 789.593 | 614.448 | 43.181 | 285.992 | 1.733.2140 |
| Aria | 1.314.863 | 738.198 | 0 | 63.687 | 2.116.748 |
| Aribe | 1.502.315 | 978.935 | 119 | 20.512 | 2.501.881 |
| Garaioa | 3.020.596 | 1.276.358 | 352 | 168.802 | 4.466.108 |
| Garralda | 6.991.489 | 3.767.278 | 1.270 | 15.119 | 10.775.156 |
| Orbaitzeta | 5.831.526 | 2.671.051 | 0 | 228.745 | 8.731.322 |
| Orbara | 1.159.345 | 721.393 | 0 | 1.612 | 1.882.350 |
| Hiriberri | 3.196.314 | 3.010.520 | 0 | 699.761 | 6.906.595 |
| Ibarreko Batzarrea | 10.235.610 | 7.950.932 | 162.050 | 689.569 | 19.038.161 |
| Guztira | 36.934.855 | 23.454.881 | 206.972 | 2.646.172 | 63.242.880 |
| Parte hartzearen portzent. | 58,40 | 37,09 | 0,33 | 4,18 | 100 |

Beste alde batetik, azterturiko zerbitzuetan kontuan hartu ez diren dirusarrera arruntak erakutsiko ditu ondorengo laukiak, kontzeptuka eta entitateka:

| Kontzeptua/Udala | Abaurregaina | Abaurrepea | Aria | Aribe | Garaioa | Garralda | Orbaitzeta | Orbara | Hiriberri | Ibarreko Batzarrea | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zergak | 3.104.897 | 847.137 | 1.154.578 | 1.484.252 | 1.970.347 | 3.510.120 | 4.712.494 | 1.356.066 | 2.961.941 | 0 | 21.101.832 |
| Bestelako tasak eta dirusarrerak | 1.041.885 | 20.250 | 51.014 | 90.309 | 97.675 | 71.419 | 165.792 | 114.623 | 93.909 | 952.892 | 2.699.768 |
| Nafarroako zergak | 4.957.098 | 1.329.561 | 2.111.015 | 1.924.167 | 3.407.111 | 8.610.494 | 6.045.968 | 1.944.603 | 4.062.033 | 0 | 34.392.050 |
| Bestelako transferentziak | 217.218 | 16.087 | 11.424 | 365.764 | 190.882 | 393.436 | 295.076 | 184.390 | 270.858 | 500.000 | 2.445.135 |
| Ondareko bestelako dirusarrerak | 166.665 | 46.110 | 25.274 | 143.518 | 153.949 | 123.163 | 306.880 | 385.322 | 154.005 | 1.726.297 | 3.231.183 |
| Bestelako dirusarrerak | 887.429 | 1.490.709 | 244.013 | 180.000 | 895.717 | 2.238.512 | 1.198.931 | 156.192 | 505.437 | 0 | 7.796.940 |
| Guztira | 10.375.192 | 3.749.854 | 3.597.318 | 4.188.010 | 6.715.681 | 14.947.144 | 12.725.141 | 4.141.196 | 8.048.183 | 3.179.189 | 71.666.908 |

Lan hau egiteko ardura izan duen Francisco Javier Sesma Masa auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Abaurregain, Abaurrepe, Aria, Orbara, Orbaitzeta, Hiriberri, Garralda, Garaioa eta Aribeko udalek eta Aezkoa ibarreko Batzarre Nagusiak honako iruzkin hauek aurkeztu dizkiote Kontuen Ganbarari, alegazioetarako epean, Aezkoa ibarreko 1999ko ekitaldiari eta arrazoizkotasun ekonomikoari buruz auditore-taldeak egindako txostenen gainean:

Fiskalizatutako entitateek, oro har, bat egiten dute txostenetako ondorio eta gomendioekin, baina honako zehaztapen hauek egin dituzte:

• Udalek eman beharreko zerbitzuen kudeaketa bateratzeko gomendioari dagokionez, hasierako bilera batzuk egin dira Udal Zerbitzuak Bateratzeko Zerbitzuarekin. Dena den oraindik ezin da zehaztu udalen jarrera bateratze horrekiko, nahiz eta esan daitekeen, momentuz, tentuz ari direla jorratzen gai hori, eta Orbaitzetako Udalak bateratzearen kontrako jarrera agertu duela.

• Udaletako aurrekontuak garatu eta betetzeari eta ondarearen egoerari dagokienez, aipatzekoa da txostenetako gomendioetako asko bete direla jada 2000 urtean, kontabilitate-sistema berriaren ezarpenari esker, eta gainerakoak, kontabilitate-plan berria aplikatzen den neurrian, betetzen joanen dira.

Esker mila egindako lanarengatik; agur bero bat.

Ariben, 2000ko abenduaren 19an

Ibarreko batzarreburua eta alkateak

# Iruñerriko Mankomunitatearen kudeaketa sozietateak eginiko inbertsioen BEZa Nafarroako Gobernuak kobratzeari buruz aholku emateko txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako aholku emateko txostena, Iruñerriko Mankomunitatearen kudeaketa sozietateak eginiko inbertsioen BEZa Nafarroako Gobernuak kobratzeari buruzkoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Iruñerriko Mankomunitatearen kudeaketa sozietateak eginiko inbertsioen BEZa Nafarroako Gobernuak kobratzeari buruz aholku emateko txostena

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (36. or.).

**II.** Helburua (36. or.).

**III.** Norainokoa eta metodologia (37. or.).

**IV.** Egoeraren deskribapena (37. or.).

**V.** Auzia zehaztea (38. or.).

V.1. Iruñerriko Mankomunitatearen autoantolaketa (38. or.).

V.2. BEZaren eragina (39. or.).

V.3. Hirurteko plana (39. or.).

**VI.** Ondorioak (40. or.).

**Eranskina.** Parlamentuaren eskaera (41. or.).

### I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak 2000ko irailaren 20an erabaki zuen, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen eskaerari jarraikiz, Nafarroako Kontuen Ganbarari aholku emateko txostena egin zezan eskatzea. Eskaera hori 1. eranskin gisa ageri da amaieran, eta labur esanda eskatzen du "txostena egin dezala Iruñerriko Mankomunitatearen kudeaketa sozietateak eginiko inbertsioen BEZa Nafarroako Gobernuak kobratzeari buruz".

Eskaera arrazoitu ondoren, zehazki eskatzen da:

• Ea Iruñerriko Mankomunitateak Servicios de la Comarca de Pamplona, S.A. (SCPSA) kudeaketa sozietatearen bidez zerbitzu publikoen kudeaketa zuzena egitearen ondorioz, Foru Komunitateko administrazioa behartuta dagoen ala ez, 1997-1999 eta 2001-2003 hiru urtetarako planei buruzko foru legeetan ezarritako prozedurei jarraikiz, inbertsioak egin eta aportazioak zuzenean jasotzen duena kudeaketa sozietatea izan dadin onartzera, EEK koefizientea zehaztean aipatu sozietatearen eragiketa ekonomikoak aintzat hartuz.

• Ea, aurreko lerroaldean planteatutakoari ematen zaion erantzuna edozein dela ere, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketa baten bidez 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektuan sartu nahi izan zen testua ordenamendu juridikoaren araberakoa den ala ez.

### II. HELBURUA

Erantzuna emateko Parlamentuaren eskaera hitzez hitz hartuz gero, hainbat legeren interpretazio juridikoa egiten eta zuzenketa bat ordenamendu juridikoaren araberakoa den esaten hasiko ginateke, eta hori erakunde aholku-emaile eskudunen edo, kasua bada, auzitegien zeregina da gurea bainoago, areago hau bezalako kasuetan, zeren halako auzietan ez ohi dira bat etorri administrazio publikoek egindako interpretazio juridikoak.

Hartara, txosten honen helburu nagusia Parlamentuaren aipatu eskaerari ikuspegi orokor batetik abiatuta erantzutea da. Aurreko lerroaldean esandakoari jarraikiz eta egindako eskaeraren eta hura bultzatu zuten zioen irakurketa sistematiko eta integratzailea eginez, Kontuen Ganbararen ustez Biltzarrak jakin nahi du zer iritzi duen ganbera honek Iruñerriko Mankomunitateak funtzionatzeko eta antolatzeko duen erari buruz eta zer eragin duen horrek toki azpiegituren hiru urtetarako planeko transferentzietako parte-hartzean eta BEZa aplikatzean.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuaren erakunde fiskalizatzaile eta aholku-emailea den aldetik, Kontuen Ganbarak txosten bat egin du, asmoak asmo, egungo egoera deskribatu eta argitzeko, irtenbideak zein izan daitezkeen azal-

tzeko eta BEZa aplikatzeak Iruñerriko Mankmunitatearengan eta SCPSA sozietatearengan –eta azken buruan zerbitzu publikoen erabiltzaileengan eta Foru Ogasunarengan– izan dezakeen eragina aztertzeko.

### III. NORAINOKOA ETA METODOLOGIA

Metodologiari dagokionez, Kontuen Ganbarak aplikatu ohi dituen programak aplikatu dira; programa horiek Ganbararen auditoretza gidetan jasotzen dira, eta Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako Sektore Publikoko Auditoretza Printzipio eta Arauen barrenean garaturik daude.

Zehazki, ondokoak aztertu ditugu: Iruñerriko Mankomunitateak eta Servicios de la Comarca de Pamplona kudeaketa sozietateak gure eskariari erantzunez igorritako dokumentazioa, Toki Administrazioko eta Ekonomi eta Ogasun departamentuen zenbait txosten eta BEZari, toki administrazioaren araubideari, toki entitateek ogasunetan parte hartzeko funtsari eta toki azpiegituren hirurteko planari buruzko legeria indarduna. Orobat aztertu ditugu auzitegien hainbat epai eta tributu administrazioaren ebazpen.

Era berean, elkarrizketak izan ditugu Ekonomi eta Ogasun Departamentuko eta Iruñerriko Mankomunitateko teknikariekin.

Azken hitza beste instantzia batzuei dagokien arren, Kontuen Ganbarak hainbat alderdi juridikori buruz aholku emateko eskumena duenez, txostenak gaiari buruzko ikuspegi orokorra –ekonomiari eta antolamenduari buruzkoa– eskaini nahi dio Nafarroako Parlamentuari.

Kontuen Ganbarak Iruñerriko Mankomunitateari buruzko fiskalizazio txostenak egin ditu 1988an eta 1994an, eta haietan mankomunitatearen eta haren sozietatearen arteko harremanari buruzko gomendioak egiten ziren jada.

### IV. EGOERAREN DESKRIBAPENA

Eskaerak planteatzen duen auzia konplexua da, bi ikuspuntutatik aztertu beharrekoa: administratiboa-antolamenduzkoa eta fiskala. Ondoren, ahalik eta argi eta laburrena deskribatuko dugu aztertu beharreko egoera.

a) Nafarroak araubide fiskala ezartzeko eskumena du. Estatuarekiko harreman fiskala Hitzarmen Ekonomikoaren bidez taxutzen da, eta haren arabera, Nafarroak araubide orokorra aplikatu behar du zeharkako zergak (BEZa) direla-eta, merkatua ez nahasteko. Europar Batasunean sartu ondotik, aintzat hartu beharrekoa da arlo horri buruz Europan emandako araudia.

b) Bere dituen eskumenak baliatuz, Parlamentuak, toki entitateen funtsen bidez, toki entitateek zergetan izan beharreko parte-hartzea ezarri zuen. Horren arabera, zilegi da interpretatzea bildutako zergen puska bat toki entitateei dagokiela. Funts horrek bi parte ditu: bata, udal guztiei esleitzen zaizkien gastu erruntetarako –zuzenketa batzuk gorabehera, biztanleen arabera egiten da banaketa–, eta bestea, inbertsioetarako.

Azken parte hori banatzeko sortu dira toki azpiegituren hirurteko planak, ez baitzaie udal guztiei banatzen.

c) Plan horretan obrak sartzeko, formula jakin bat erabiltzen da. Hona mankomunitateen kasuan erabiltzen dena:

P = A + % 20 x EEK

Honela irakurririk:

E: aportazioaren ehunekoa.

A = inbertsio motaren arabera ezarritako aportazioaren gutxieneko ehunekoa.

EEK = egoera ekonomiko-finantzarioaren koefizientea da. Toki entitate bakoitzerako kalkulatuko da, zorduntze teorikoaren maila (ZTM) eta zorduntze mugaren (ZM) arteko emaitza erabiliz.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 272.2 artikuluan ezarritakoari jarrikiz, 1999ko aurrekontuko likidazio espedienteetan oinarrituta eginen da koefizientearen kalkulua.

d) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 7. artikuluaren arabera, ez zaizkio zergari atxikiko "ente publikoek kontraprestaziorik gabe edo tributu izaerako kontraprestazioaren bidez zuzenean burututako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak”.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ez da aplikatuko aipatu ente horiek enpresa publiko, pribatu edo mistoen bidez edo, orokorrean, merkataritza enpresen bidez jarduten dutenean.

Beti ere, zergari atxikiko zaizkio ur, gas, bero, hotz eta argindarraren eta gainontzeko energia motak banatzeko zerbitzua.

Gainera, 1998-01-01etik aitzina, kasuan-kasuan, jasandako BEZaren kenketa gutxitu eta banaketa proportzionalaren araua aplikatzeko tratamendu fiskala ezarri zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zerga-oinarriko osagai ez diren dirulaguntzetarako.

Horrek, praktikan, hauxe esan nahi du: ondasun jakin bat finantzatzeko dirulaguntza jasotzen bada –% 70ekoa esate baterako–, jasanarazitako BEZaren keneketaren ondorioetarako diruz lagundu ez den inbertsioaren % 30 soilik hartuko da jasandako BEZtzat. Ondoko adibideak ondo erakusten du egoera:

Faktura ondokoa da:

| | |
|---|---|
| Prezioa edo tasa | 100.000.000 PTA |
| Jasanarazitako BEZa (% 7) | 7.000.000 PTA |
| Kobratutakoa, guztira | 107.000.000 PTA |

Epe horretan ondoko inbertsioak egin dira:

| | |
|---|---|
| Egindako inbertsioak | 50.000.000 PTA |
| Inbertsioen BEZa (% 16) | 8.000.000 PTA |
| Ordaindutakoa, guztira | 58.000.000 PTA |

Zenbatekoaren % 70eko dirulaguntza jaso da, hau da, 35.000.000 milioi pezeta.

BEZaren likidazioa ondokoa izanen zen 1998ra bitarte:

| | |
|---|---|
| Jasanarazitako BEZa | 7.000.000 PTA |
| Jasandako BEZa | 8.000.000 PTA |
| Itzuli beharrekoa | 1.000.000 PTA |

BEZaren likidazioa ondokoa izanen zen 1998tik aitzina:

| | |
|---|---|
| Jasanarazitako BEZa | 7.000.000 PTA |
| Jasandako BEZa (8.000.000tik % 30) | 2.400.000 PTA |
| Ordaindu beharrekoa | 4.600.000 PTA |

e) Hori guztia gorabehera, hirurteko planeko aportazioak –toki ogasunen funtsetakoak– Nafarroako tributuetako parte hartzeak direla interpretatu ohi du Ogasun Departamentuak, eta horrenbestez, ezin dira dirulaguntzatzat hartu BEZaren aplikazioari begira.

f) Iruñerriko Mankomunitateak Servicios de la Comarca de Pamplona sozietate anonimoa baliatzen du zerbitzuak emateko –haren kapital guztiguztia mankomunitatearena da.

Iruñerriko Mankomunitatearen eta Servicios de la Comarca de Pamplona, S.A.ren arteko harremanen erregelamenduak 1998ko urtarrilaren 1ean hartu zuen indarra. Haren arabera, Servicios de la Comarca de Pamplona, S.A.k bere gain hartu zuen zerbitzuen kudeaketa zuzena, eta hortaz, prestazio horien hartzaileekiko eta erabiltzaileekiko harreman juridikoaren titulartasuna ere bai –hor sartzen da zerbitzu horiek eman eta kobratzearen alderako dirusarreren titulartasuna.

Kudeaketa eta harreman eredu berri horrekin bat etorriz, 1997ko abenduaren 18an egindako batzarrean, Iruñerriko Mankomunitateak erabaki zuen gutxienez ere 25 urteko eperako sozietateari atxikitzea kudeatu behar dituen zerbitzuei atxikitako ondare guztia, ondare hori osatzen duten obligazio, eskubide eta ondasun guztien aportazioaren bidez. Sozietateak bere gain hartu zituen orobat egin beharreko inbertsio berriak zein birjarpenezkoak, eta horretarako, hirurteko planean jasotzen diren inbertsioak eta obra proiektuak prestatu, onetsi eta betearaziko ditu.

g) 1998 eta 1999ko BEZaren aitorpena egitean, S.C.P.S.A.k ez zuen dirulaguntzatzat hartu hirurteko planari jarraikiz Nafarroako Gobernuak eginiko aportazioa eta, hortaz, ez zuen aplikatu beharrekotzat hartu banaketa proportzionala.

h) Ogasun Departamentuaren ustez, berriz, inbertsioak mankomunitateak eginez gero, funtsetik eratorritako finantziazioak ez luke eraginik izanen jasandako BEZaren kuotan, dirulaguntza izan beharrean Nafarroako tributuetako parte-hartzea izanen bailitzateke (ikus epigrafe honetako "e" letra). Obrak sozietateak eginez gero, ordea, titulartasuna mankomunitateari dagokionez, departamentuaren ustez, funtsetik jasotako diruarekin inbertsioen betearazpenaren bidez sozietateak egiten dizkion zerbitzu-emateak eta ondasunentregak –zergari atxikiak eta salbuetsi gabeak– ari da ordaintzen.

i) 1998 eta 1999ko zenbatekoa 400 bat milioi pezetakoa da.

## V. AUZIA ZEHAZTEA

Honetara ezkero, komeni da auziak har ditzakeen hiru eremuak finkatzea:

a) Iruñerriko Mankomunitatearen autoantolaketa

b) BEZaren eragina

c) Hirurteko plana

## VI.I. IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN AUTOANTOLAKETA

Iruñerriko Mankomunitateak zerbitzu emateko hautatu duen sistemaren arabera, gaur egun, mankomunitateari ordezkaritza politikoa dagokio, eta bazkide bakarreko sozietate anonimoari, berriz, zerbitzuaren kudeaketa. Zerbitzu publikoen kudeaketa zuzena egiteko legeria indardunak aurreikusitako formulaterik bat da eredu hori.

Azken urteotan, "administrazio zuzenbidearen muga estuetatik" ihes egitearren eta kudeaketa

arin eta eraginkorra egin behar zelako aitzakian, behin eta berriro sortu dira zuzenbide pribatuari lotutako entitateak eta sozietak.

Toki ente batek sortutako bazkide bakarreko sozietate anonimoa –toki entitateak nahitaez eman beharreko zerbitzu publiko baten kudeketeaz arduratzen dena eta irabazi asmorik ez duena– "sozietate anonimo berezia" da behinik behin. Hori dio Auzitegi Gorenak ere 2000ko martxoaren 10eko epei batean: "la realidad es que las sociedades mercantiles constituidas por la Administración como socio único, se hallan más cerca de la fundación de un servicio público que de una figura asociativa... Es cierto que externamente estas sociedades mercantiles se relacionan con los usuarios bajo fórmulas jurídicas propias del Derecho privado, para encambio inernamente actuar casi como un órgano del ente público...".

Halere, esan beharra dago gure esparru juridikoan ez dugula aurkitu inolako araurik argi eta garbi definitzen duenik zein diren halako sozietateen eta gainontzeko sozietateen eta administrazioaren beraren arteko antzekotasun eta ezberdintasunak.

Neurri batean sozietate pribatuen funtzionamendu arauak dituen sozietatea dugu honakoa, nahiz eta haren jardueraren xedea eta helburua publikoak izan. Zail da zehaztea, hortaz, nola eta noiz aplikatu behar zaion zuzenbide pribatua eta noiz publikoa halako erakunde mota bati.

Argi dago ezen, sozietate bat den aldetik, araubide pribatua baliatzen duela langileekiko eta bezeroekiko harremanean; kontratazioa arloan, berriz, kontratazio publikoa arautzen duten oinarrizko printzipioei lotzen zaie, nortasun juridiko berezitua du eta, horrenbestez, tributu arloan subjektu pasiboa da, baina era berean nahitaezko zerbitzu publikoa eskaintzen du.

Nafarroako Kontuen Ganbarak erakundeei, enpresei eta bestelako enteei buruz eginiko txostenean –62. NPAO, 2000ko abuztuaren 3koa– plantetutako arazoaren antzekoa dugu esku artean. Horri irtenbidea bilatzeko, definitu egin behar da zein esparrutan jardun behar duten halako enteek edo, bestela, aldatu gaur egungo araudi publikoa; hartara, zuzenbide publikoa gaurkotzeko eta egungo jardueren premiei egokitzeko ez da beharrezkoa izanen azken urteotan agertu den entitate mordoa agertzea.

### V.2. BEZAREN ERAGINA

Zerbitzu publikoa kudeatzen duen toki administrazioak BEZa dela-eta kenketa handiagoa egiteak kostua jaistea dakar, eta horrenbestez, herritarrei prezio publiko edo tasa baxuagoa kobratzea eta Nafarroako Gobernuak zerga bidez diru gutxiago biltzea.

Halere, zerbitzu horiek emateko lehiarik ez dagoenez, herritarrak eskatzen zaion kostua ordaindu behar du, eta administrazioaren jardunak ez du inolako eraginik izanen merkatuan.

Espainiako legeriak, eta horrenbestez Nafarroak ere bai, Europako zuzentarauarena baino araubide estuagoa darabil, eta bide ematen du "subjektu pasibo bakartzat hartzeko finantza, ekonomia eta antolamendu arloetan beraien artean lotura estu-estuak eduki arren independentzia juridikoa duten pertsonak".

1998ko urtarrilaren 1ean eginiko aldaketa baten bidez, eragotzi egin zen jasandako BEZa dela-eta kenketa egitea dirulaguntzen bidez finantzatutako enpresa-jarduera eta eta inbertsioetan. Bada, aldaketa hori zalantzan jatrri dute hainbat autore eta erakundek, eta horren ondorioa, gero tratamendu horretatik albo batera utzi dira zenbait dirulaguntza, esate baterako FEOGA dela-eta Europar Batasunetik jasotakoak.

Jakin badakigu badela errekurtsoren bat dirulaguntzak hainbanaketa erregelan sartzeari buruz, zergagaian aintzat hartuak ez direlako.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren interpretazioak ere –hirurteko planeko aportazioak dirulaguntzen tratamendu horretatik bereizten ditu– badu bere logika, finantziazio horren izaera alegia (Nafarroako zergetan parte-hartzea), baina interpretazio hori kritikatu egin daiteke tributu teknikako ikuspuntu eta azterketa baliatuz.

### V.3. HIRURTEKO PLANA

Hirurteko plana toki entitateekiko lankidetza ekonomikoa jorratzeko tresna da, udalek nahiatez eman beharreko zerbitzuak Foru Komunitate osoan ematen direla bermatzearren.

Xedapen gehigarrietan ezartzen denez, "foru lege honek agintzen duenaren arabera kalkulatutako aportazio ehunekoa, inbertsio osoari (BEZabarne) aplikatuko zaio baldin obra horietan delako toki entitatea azken buruzko kontsumitzaile bada, hau da, jasandako BEZa kenkari ez denean. BEZaren peko inbertsio eta obretan, jasandako BEZaren kenketa egiteko eskubidea sortzen duetenetan, delako aportazio ehunekoa zerga oinarriaren gainean eginen da (BEZik gabe)".

Egoera ekonomiko-finantzarioaren koefizientea –EEK– kalkulatzeko ezarri den formula (ikus IV.c atala) aurrekontu kontabilitateari lotutako entitateei dagokie argi eta garbi, haietan baitira apli-

katzekoak zorduntze teorikoaren maila eta zorduntze muga, berez sozietate anonimoetan erabiltzen ez direnak.

### VI. ONDORIOAK

Aurreko ataletan adierazi dugun legez, Parlamentuak egindako eskarian planteatzen diren auziek asko dute juridikotik, eta horiek ebaztea erakunde aholku-emaile eskudunen edo, kasua bada, auzitegien zeregina da gurea bainoago.

Halere, egoera zein den ikusita, dauden aukerak aurkeztu nahi ditugu, abantailak eta eragozpenak zehaztuz, Parlamentuak egoki iritzitako erabakiak har ditzan:

1. Zuzenbide pribatuari lotutako entitate edo sozietateak administrazio zuzenbidearen "muga estuetatik" ihes egitearren sortzen dira. Administrazio aldatu edo gaurkotuz gero eta kudeaketa ekonomikoa egiteko egungo sistemetara egokituz gero, ez zen beharrezkoa izanen halako entitateak sortzea.

Entitate horiek zein esparrutan –publikoa, pribatua ala bien arteko zerbait– jardun beharko lukete zehatz-mehatz definitu eta zehaztu beharko litzateke.

Egokitzapen horiek mantso-mantso egin ohi dira, zeren eztabaida politikoa eskatzen dute aldez aurretik, eta duten izaera aintzat hartuta Gorte Nagusiek hartu beharko lituzkete halako erabakiak, zeren administrazioaren antolaketako oinarrizko alderdiak ukitzen ditu.

2. BEZari buruzko araudia aldatzea, hainbanaketa erregelatik eta kenkariak egiteko eskubidea gutxitzeko tratamendutik bestelako dirulaguntza eta finantziazio mota batzuk bereiztearren, FEOGA dela-eta jasotako dirulaguntzekin gertatzen den bezala.

Planteamendu horrek badu oztopo bat, zeren Nafarroak ezin du lege hori aldatu Estatuak aldez aurretik halakorik egin ez badu. Gainera, orduan ere plantea liteke ea ez ote den Gobernuak Iruñerriko Mankomunitateari eta horrek bere sozietateari eginiko aportazio edo dirulaguntza bikoitza.

3. Ogasun Departamentuak interpretatzea funtsetik eratortzen den finantziazioa dirulaguntza dela; hartara, toki entitate guztiak sartuko lirateke hainbanaketa erregelan, eta "galera" hori ordaintzeko toki entitateentzako dirulaguntza bat ezartzea. Hori eginez gero, BEZaren itzulketa txikiagoa jasoko lukete berez toki entitate guztiek, baina hori finantziazio-ehuneko handiago baten bidez berdindu liteke, zeren Ogasunak dirubilketa areagotuko luke eta tratamendu bera emanen litzaieke zergadun guztiei.

4. Interpretatzea ezen funtseko aportazioa transferentziatzat eta ez dirulaguntzatzat hartzea ez zaiela soilik aplikatzen toki enitateei, baizik eta toki entitateen menpeko enpresa publikoei ere, beharrezkotzat jotzen diren eskakizunak eginez –esate baterako, kapital osoa publikoa izateea–, baldin eta nahitaezko zerbitzu publikoen kudeaketa egiten badute.

Azken finean, xede horri begira –horri bakarbakarrik– enpresa eta entitatea maila berean jartzea litzateke kontua, edo, beste modu batera esanda, funtseko aportazioa objektuaren arabera, eta ez subjektuaren arabera, aintzat hartzea.

5. Iruñerriko Mankomunitateak antolatzeko duen moduaren ondorioz, Iruñerriko Mankomunitateko herritarrentzat uraren kudeaketa garestiagoa izatea dakar egungo egoerari eusteak. Halere, kontuan izan behar da ezen, Nafarroa osoan kostu homogeneo bat egon ezean, entitatearen jardunak dituen arriskuak bere gain hartzen duela entitate bakoitzak eta, hortaz, azken kostua eraginkortasunaren eta kudekatzeko moduaren araberakoa izanen dela. Ezin da kostuez hitz egin batugai bakarra aintzat hartuz, beste batzuk –langileak, gauza baliabideak– eta zerbitzuen kalitatea ere aztertu behar liratekeelako.

6. Aurreko hori onartzen baldin bada, badira gutxienez ere bi aukera Iruñerriko Mankomunitateak jasandako BEZa "berreskuratzeko".

a) Mankomunitateak egindako kapital-zabalkuntzen bidez finantzatzea sozietateak eginiko obrak; horrela, ez zen inolako dirulaguntzarik egonen, baina eragiketa horiek diru gutxiko zergakostuak sortuko zituzten.

Hala eginez gero, Iruñerriko Mankomunitateak harremanetarako egun darabilen barne sistema aldatu beharko luke. Formula hori etorkizunerako eredu baliagarria denez, konpontzeke geratuko litzateke gaur egun zalantzak sortzen dituen epea, horren konponbidea gehiengoaren borondate politikoaren eskutik etorriko baita.

b) Sozietateak Iruñerriko Mankomunitateari ondasun ibilgetuen lagapena dela-eta ordaindu beharreko "prezioa" ezartzea. "Prezio" ezarririk ez dagoen arren autokontsumotzat jo daiteke, eta hori ere BEZari lotuta legoke. Hala eginez gero, entitate biek izanen lukete jarduera eta jasandako BEZa osorik ken liteke.

Gure ustez, azken sistema hori arau indardunekin bat dator, eta ez zen beharrezkoa izanen mankomunitatearen eta sozietatearen arteko

egungo harreman sistema aldatzea. Era berean, konponbidea dakar etorkizunari begira, eta baita aurreko urteetako egoerari begira ere.

Planteamendu horiek egitean informazioa eman nahi dugu, Nafarroako Parlamentuak egoki iritzitako erbakiak har ditzan egin zuen eskaerari buruz. Halere, esan beharra dago alor horretako araudi indarduna oro har aplikatzekoa dela, unean uneko auzi juridiko arantzatsuak ebaztea erakunde aholku-emaile eskudunei edo, kasua bada, auzitegiei dagokiela eta txosten honetan proposatzen diren konponbideek, kasuren batean, egungo araudia aldatzea aldatu edo egokitzea eskatzen dutela.

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**ERANSKINA.- PARLAMENTUAREN ESKAERA**

**a) Parlamentuak Kontuen Ganbarari eginiko eskaera, txosten hau egin dezan**

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2000ko irailaren 18an egindako bilkuran, besteak beste, ondokoa erabaki zuen:

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak idazki bat aurkeztu zuen, Iruñerriko Mankomunitatearen kudeaketa sozietateak eginiko inbertsioen BEZa Nafarroako Gobernuak kobratzeari buruz aholku emateko txostena eskatzearren Kontuen Ganbarari. Bada, hori ikusita ERABAKI DA:

1.- Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen eskarian planteatzen diren auziei buruzko txostena eskatzea Kontuen Ganbarari. Eskaria eranskin gisa doa honekin batera.

2.- Erabaki honen berri ematea Kontuen Ganbarari eta Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari.

Iruñean, 2000ko irailaren 19an

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués

**b) Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak txostena egiteko Parlamentuko Mahaiari eginiko eskaera**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 199.1 artikuluan xedatuaren babesean, Iruñerriko Mankomunitatearen kudeaketa sozietateak eginiko inbertsioen BEZa Nafarroako Gobernuak kobratzeari buruz aholku emateko txostena Kontuen Ganbarari eska dakion eskatu du.

Eskaeraren azalpena

Iruñerriko Mankomunitateko Batzar Nagusiak, 1997ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Servicios de la Comarca de Pamplona, S.A. (SCPSA) enpresari hirurteko planean aurreikusitako inbertsioak egin zitzan agintzea erabaki zuen, bai eta foru plan hartan jasotzen ziren obra proiektuak idatzi, onetsi eta egin zitzan ere.

1997tik 1999ra bitarteko toki azpiegituren hirurteko planari buruzko 3/1996 Foru Legean, berriz, toki entitateak soilik aipatzen dira beren xedea garatzeko duten parte-hartzea dela-eta, baina ez da espresuki jasotzen plan horretako aportazioen xede diren zerbitzuak emanen dituzten ente instrumenalen existentzia, sozietate zein erakunde autonomo izan. Beste horrenbeste gertatzen da 2001etik 2003ra bitarteko toki azpiegituren hirurteko planari buruzko 3/1996 Foru Legean.

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko Departamentuak exijitu ohi du Mankomunitateko organoek berek egitea obren kontratazioak prestatzeko egintzak, hau da, adjudikazio era eta pleguak onestea, aportazioa gero egiteko toki entitateari, nahiz eta Mankomunitateak behin eta berriro esan kudekatea sozietateari dagozkiola bi zeregin horiek, alegia, kontratazio prozedura oso-osorik garatzea eta obren betearazpena finantzatzeko aportazioak jasotzea.

Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentuak uste izan zuen 2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legeak auzi hori jorratu behar zuela, eta, horrela, honela geratu zen 20.4 artikuluko bigarren lerroaldea:

Zuzeneko kudeaketa –nortasun juridiko propioa duen entitate baten bidezkoa– daukaten toki entitateen kasuan, foru lege honetan zehaztutako aportazioak zuzenean eman ahalko zaizkie entitate horiei, baldin eta, betiere, horiek inbertsioak egiten badituzte eta hala eskatzen badu toki entitateak berak.

Foru lege horrek, ordea, 2000ko ekitaldian baizik ez zuen eragina, eta, horrenbestez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldea 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektuari zuzenketa egin nahi izan izan, ondokoa hain zuzen ere:

"Nortasun juridiko berekia duen entitate baten edo merkataritzako sozietate baten bidezko zuze-

neko kudeaketaren bidea hartuta, hiru urtetarako planeko inbertsioen exekuzioa entitate edo sozietate horri esleitu dioten toki entitateen kasuan, entitate edo sozietate horren organoei dagokie proiektuen eta pleguen onespena, eta halaber, planean obrak behin-behinekoz eta behin betikoz sartzeko eta Planaren exekuziorako beharrezkoak diren betekizunen tramitazioa.

Era berean, foru lege honetan aurreikusiriko aportazioak zuzenean egin ahal izanen zaizkie entitate edo sozietate horiei, toki entitateak hala eskatzen badu.

Zuzeneko kudeaketa merkataritzako sozietatearen bidezkoa denean, EEK koefizientearen kalkulurako, kontuan hartuko da toki entitatearen egoera ekonomiko-finantzarioa, haren osotasunean, kudeaketa sozietatea barne, eta horretarako, 9.4 artikuluak aipatzen duen aurrekontuen likidazioari sozietate horrek egindako eragiketak gehituko zaizkio."

Testutik ondorioztatzen den legez, helburua zen, batetik, aurreikusi diren aportazioen betearazpena kudeaketa sozietateei esleitzeko aukera jasotzea legeak eta, bestetik, toki entitatearen egoera ekonomiko-finantzarioa bere osotasunean hartzea –kudeaketa sozietateak barne– 7/2000 Foru Legeko 9.3 artikuluan definitzen den EEK koefizientearen kalkulatzeko.

Kontuen Ganbarari txostena eskatzea

2001etik 2003ra bitarteko hirurteko planari buruzko Foru Legeari aurkeztutako zuzenketa ez zen onetsi, zeren zenbait taldek zalantzak zituen zuzenketaren legezkotasunari buruz. Bada, auziak garrantzi handia duenez, , Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 191.1 artikuluan xedatuaren babesean –hartan xedatzen da Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren bidez Kontuen Ganbarari "jarduteko behar dituen aholku eta txosten teknikoak" eskatzen ahal zaizkiola–, zalantza horiek argitzearren eskatu du Kontuen Ganbarari eska dakiola txosten bat egin dezan, jakiteko:

• Ea Iruñerriko Mankomunitateak Servicios de la Comarca de Pamplona, S.A. (SCPSA) kudeaketa sozietatearen bidez zerbitzu publikoen kudeaketa zuzena egitearen ondorioz, Foru Komunitateko administrazioa behartuta dagoen ala ez, 1997-1999 eta 2001-2003 hiru urtetarako planei buruzko foru legeetan ezarritako prozedurei jarrikiz, inbertsioak egin eta aportazioak zuzenean jasotzen duena kudeaketa sozietatea izan dadin onartzera, EEK koefizientea zehaztean aipatu sozietatearen eragiketa ekonomikoak aintzat hartuz.

• Ea, aurreko lerroaldean planteatutakoari ematen zaion erantzuna edozein dela ere, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketa baten bidez 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektuan sartu nahi izan zen testua ordenamendu juridikoaren araberakoa den ala ez.

Iruñean, 2001eko irailaren 14an

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eleduna

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

# HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* ..............................................................................................................................

*Helbidea* ......................................................................................................................................

*Telefonoa* ........................................................... *Hiria* ...........................................................................

*P. K.* ............................................................ *Probintzia* ...........................................................................

---

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

| HARPIDETZAREN PREZIOA | IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA |
|---|---|
| ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA | **NAFARROAKO PARLAMENTUA** |
| Urte bat....... 6.300 pta. | «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» |
| Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa....... 150 » . | Arrieta 12, 3 |
| Bilkura Egunkariaren aleko prezioa....... 185 » . | 31002 IRUÑA |

Inprimatzailea: Gráficas ONA, S. A.—Artika (Nafarroa).

Lege Gordailua: NA—363-1995

Paper ekologiko birziklatua